



Gurs, memorian tokia

Han izandako 28 sakandarrak gogoan izan zituzten larunbateko omenaldian / 2-4

AITZIBER ETXAIZ SORIA



D ereduak 0,9 egin du gora Sakanako ikastetxeetan ikasturte mustu berrian / 7

Txistorra egun batez protagonista izanen da Arbizun, igandean, hari eskainitako 9. egunean / 9

Iturraskarri gizarte proiektuen emaitzak ezagutzeko mendi ibilaldia eginen da igandean / 8



Ihabarko antzerki taldeak bere azken muntaia bihar eskainiko du herriko plazan / 23

Urdiaingo Aitziber elkarteak 50. urteurrena ospatuko du bihar egun osoko egitarauarekin / 22

Nafarroako Trikitixa Eskolen Jaialdia hartuko du bigarreneguz Arbizuk igandean / 12



Mota guztietako ibilgailuak, tresna eta trasteak biharko Bakaikuko Katxarro Egunean / 18

Gursko eremuan izandakoei aitortza

Handik pasa ziren 500 nafarren omenez egindako monumentu bat mustu zuen Uxue Barkos lehendakariak larunbatean. Gutxienez 28 sakandar pasa ziren kontzentrazio eremu bihurtu zen errefuxiatu eremutik, eta haien senideak ere ekitaldian izan ziren

SAKANA

Oloroe-Donamariako Gurseko kontzentrazio-esparruan izan ziren bostehun nafar ingururi omenaldia egin zien Nafarroako Gobernuak larunbatean. Historiako pasarte ilun horretan nafarrak egon zirela egiaztatzen duen monolito bat mustu zuen Uxue Barkos Berruezok. Gursen izandakoen artean, gutxienez, 28 sakandar izan ziren. Eta haien ordezkariak bat presente izan zen ekitaldian. Oroigarria mustu ondoren, erakundeetako ordezkariak eta bertaratutakoek krabelin gorrien lore-eskaintza egin zuten monumentuaren aurrean.



Gurseko barrakoi egitura bateko plaka irakurtzen. AITZIBER ETXAZ

Hitzaldiak

Ekitaldian hitza hartu zutenen artean Esteban Fernandino zenaren alaba Anitak hartu zuen hitza: "erbestea gauza ikaragarria da. Aitari min handia egin zion. Hemen milaka pertsonari mina egin zion. Eta arrazoi politikoenatik, edo goseagatik, euren herrietatik alde egitera behartuak dauden pertsonen min handia egiten segitzen die. Hori ere esan beharra dago. Gaur pozik nago gure historia berreskuratzen dugulako hemen eta Espainian. Gaur Gurseko eremuak bere sortze historiarekin topo egin

du; Frankismoaren kontrako borrokari horien guztien historia, zibilak, soldaduak, hegazkinlari, brigadistak eta abar".

Lehendakariak erbesteratuek jasandako jazarpena eta errepresioa, Nafarroan eraildako 3.000 pertsona baino gehiago, kartzelatuak eta umildu zituztenak izan zituen gogoan. Urteetako isiltasunak senide eta adiskideen babesgabetasuna handitu zuela nabarmendu zuen. Barkosek bere Gobernuak bakea, bizikidetzeta eta giza eskubideak defendatzeko duen konpromisoa,

aniztasuna errespetatuz eta bake-kultura sustatuz. Tokiko agintariak eta memoria berreskuratzeko lanean ari diren erakundeetako ordezkariak ere hartu zuten hitza. Ekitaldian izan ziren, besteak beste, Unai Hualde Nafarroako Parlamentuko lehendakariordea, Javier Ollo Altsasuko alkatea eta Maria Flores Uharteko memoria taldeko ordezkaria.

Gurseko esparrua

Gurseko esparrua 1939. urtean sortu zen errefuxiatuen esparru

gisa, frankismoaren errepresioetik ihes egiten zuten lau pertsona-talde hartzeko. Talde horietatik jende gehien zuenetako bat euskaldunena eta nafarrena zen, Argelesetik Gursera eraman zituztenak. Bigarrena, zenbait herrialdeetatik etorritako Nazioarteko Brigadetako kideez osatuta zegoen, egoera politikoa eta ekonomikoa zela-eta beraien jatorrizko tokietara ezin zirenak itzuli. Hirugarrena, hegazkinlariena gisa ezaguna zena, egia esan, armada errepublikanoko teknikariz osatuta zegoen. Eta laugarren bat ere bazegoen, Estatuaren zenbait tokietatik etorritako pertsonen osatuta zegoena. Guztira, 18.000 pertsona baino gehiago zeuden Gursen barruan 1939. urteko udaberrian.

Alemaniak Frantzia okupatu ondoren, 1940. urtean, Vichyren erregimenaren agindupean, esparrua kontzentrazio-esparrua izatera pasa zen, batez ere Europako zenbait lekutako juduak sartzeko, baina baita disidente politikoa eta beste gutxiengo batzuk ere, hala nola ijitoak, homosexualak eta abar. Bigarren aro horretan Espainiako errepublikanoak ere egon ziren Gursen.

Zenbait ikerketa lanek berretsi dute jatorri nafarreko 435 pertsona gutxienez igaro zirela Gursen esparrutik. Horien artean dago Josu Chueca historiariari argitaratutako *Gurs el campo vasco* liburua (2007, Txalaparta). Gobernuak senideekin izandako harreman zuzena lan horretan lagungarria ere izan da. Horien artean zeuden UGTko kideak (jende gehien zuen taldea), CNTko afiliatuak, komunistak, sozialistak, EAJko kideak, Ezker Errepublikanoak, Eusko Abertzale Ekintza-

koak edo afiliazio politiko ezaguna ez zuten pertsonak. Horiek guztiek Pirinioetatik ihes egin zuten errepresio frankistatik. Asko ez ziren berriro itzuli eta erbestean bizi behar izan zuten, Frantzian, edo baita lur amerikarretan ere

Txarrantxaz inguratuta, soldaduek zainduta, han zegoen lokatza da askok eta askok gogoratzen dutena. Gaur egun Gurseko kontzentrazio eremuan izan zirenei buruz dagoen dokumentazio guztia garaiko Eusko Jaurlaritzak egindako bisita bategatik da, zerrendak osatu baitzituzten. Izan ere, naziak iristean eremuko dokumentazio guztia erre zuten, errepublikazaleak salbatzeko. Frantziaren kontrolpean zegoen eremu hura eta zaindarien Espainiara joateko animatzen zituzten han zeudenak. Gurs ondoko herrietakoek jatekoekin eta laguntzen zieten. II. Mundu Gerra bukatzean kontzentrazio eremua erre eta zuhaitzak landatu zituzten. Gaur egun basoa da eta hilerria zein berreraikitako barrakoi bat oroigarriak dira han gertatutakoaren lekuko.



Ostiraleroko SAIOA

9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera Metropoli forala

9:00etatik 11:00etara

Esataria: Maider

Gaurko gaiak:

- Arbizuko Txistor Eguna
- Sindikatuak Kataluniarekiko elkartasunez deitutako mobilizazioez
- Gotzon Perez Artutxekin XIX. mendeko arbizuko prentsa albisten bildumaz



beleixe

www.guaixe.eus-en ON LINE

Dimas Fernandino

Uhartearra Toledon ikasten zegoela izan zen estatu kolpea. Tokiagatik eta familiaren konpromisoagatik errepublikako armadan aritu zen 18 urterekin. Gerra bukatuta, Kataluniatik Frantziara jo zuen. Argeles Sur Merko hondartzan txarrantxadun errefuxiatu eremuan hotza eta hezetasuna bizi izan zituen. Anaiarekin kasualitatez topo egin zuen eta hark bizia salbatu zion. Handik Gursera. Lokatza eta euria. Lan batailoiei izkin egin zien eta naziak Frantzian sartzen ari zirela Espainiako erresistentziarekin bat egin baina Aran ibarra hartzeko asmoak porrot egin zuen. Naziak aritu zen. Gerra ondoren, ezkutuan Iruñera, Bilbora eta Madrilera joan zen. Bere arrebak gerrako umeak ateratzeko lanean aritu ziren. Haien bidez errefuxiatu gisa sartu zen Frantzian.



Dimas Fernandino. DIARIO DE NOTICIAS

Martin Soler Zangitu

Altsasuarra. Delineantea. Sozialista, estatu kolpearekin batera Altsasu utzi behar izan zuten askotariko bat izan zen. Gerra galdu eta gero Argeles Sur Merko kontzentrazio eremuan bukatu zuen. Telesforo Monzonen lagun mina (abertzaleekin harreman ona zuen), biek adostu zuten euskal errefuxiatuak Gursera ekartzea, Euskal Herriatik gertuago egoteko. Gursen kanpoko lehen burua izan zen. Bere ikasketengatik Gursko zelaia diseinatu zuen, egitura eta barrakoiak.

Kontzentrazio eremuan lauzpabost hilabete eman zituen eta Arudyko lantegi batera tornulari gisa lan egitera ateratzea lortu zuen. Gero berean lan egiteko aukera izan zuen. Oloronen bizi izan zen. Handik kontzentrazio eremukoak asko lagundu zituen: jatekoak, arropa, ikasketak... Bere etxean errefuxiatu gazteei irakatsi egiten zien. Eta asteroko errefuxiatuen bileretara ez zuen hutsik egiten. Euren egitekoetako bat dirua biltzea izan zen, iristen ziren errefuxiatuei laguntza momentuan emateko; gaixo zeudenei operazioak ordaintzeko, jatekoa emateko.

90eko hamarkadan Mexikoko eskuko maleta gisa ezagutzen den argazki bilduma opatu zuten. Zazpi hamarkadatan gordeta eta desagertuta egon ziren Robert Capa argazkilari ezagunaren argazki sorta zabala. Espainiako Gerra Zibilean hartu zituen. Solerren seme bat erakusketa ikusten ari zela, aitaren argazkiarekin topo egin zuen.



Martin Soler Zangitu. ROBERT CAPA

Luis Fernandino

1916an jaio zen Uhartarakilen. Zortzi anai-arreba ziren. Medikuntza ikasten ari zela harrapatu zuen estatu kolpeak. Gerra mediku zerbitzuetan eman zuen. Ebroko batailan izan zen eta errepublikarrek hura galdu ondoren Bartzelonara joan zen. Frankistek garaitzean Frantziarantz jo zuen eta Angeles Sur Merko hondartzako txarrantxaz inguratutako kontzentrazio eremuan sartu zuten. 1939ko apiril hartan elurra egin zuen eta han ziren guztiak gorriak pasa zituzten.

Gursen 1941era arte egon zen. Naziak ordurako Frantziak jabetu ziren eta kontzentrazio eremuan zabaldu zen zelaiko buruek jarritako hitzordura joaten zirenak desagertu egiten zirela. Luisek halako deialdia jaso eta hanka egitea lortu zuen. Kontrabandista batendako kobrez betetako motxila bat garraiatuz pasa zuen

muga, dokumentazio faltsua aldean zuela. Madrilera jo zuen eta odol delituri ez zuenez libratu zuten. Medikuntzako bukatu zuen 1943an.

Luisen eta Dimasen aita beste bat ordezkatzu, eta kobratuz, joan zen soldaduskara (ohikoa orduan). Hura bukatzean armadara bueltatu zen eta Kubako gerran izan zen. Handik malariak jota bueltatu zen eta hil egin zen. Haren seme Primitivok eta Josek Toledoko umezurtzen eskola militarrean ikasi zuten eta handik hiri bereko infanteria akademiara pasa ziren. Estatu kolpeak anai bakoitza alde



Anita, Dimasen alaba, Luisen iloba

banatan harrapatu zuen. Primitibo estatu kolpearen aldekoekin aritu zen eta gerran hil zen. Jose, berriz, errepublikazaleekin. Atxilotu eta heriotza zigorrera kondenatua izan zen. 1950 ingurura arte bete zuen espetxe zigorra. Atera eta Bilbon eta Valentzian izan zen. Jubilatzean Uhartera bueltatu zen. Gursen izan ziren bi anaien bi arrebek ere hanka egin behar izan zuten: Filomenak Venezuelara eta Elodiak Frantziara, Tolosan bizi izan zen.

Octavio Vitoria Lacilla

Altsasuarra, Manuela Gerriko Goikoetxearen senarra. Kisuagilea, PSOEkoa gobernuaren zerrendan, etxean beti Falkea zela esan da. Estatu kolpeak Iruñean harrapatu zuen. Altsasura etorri eta ihes egin zuen. Milizia bateratuko Rusia frontean aritu zen gerran, iparraldeko frontean eta Santanderren. Han galdu ondoren, Frantziatik Kataluniara jo zuen. Gerra galtzean Frantziara joan zen eta Angeles sur Merko hondartzako eremu izan zuten. Hotz handia pasa zuten. Jatekoa txarrantxan gainetik botatzen zieten. Handik Gursera. Espainiara entregatua soldadu langileen batailo batean lan behartuak egiten izan zuten frankistek. Tetuan aldean izan omen zen hiruzpalau urtez. Oso gaizki pasa zuen han. Bukatu zuenean herrira bueltatu zen gaixo eta hil egin zen.



Larunbatean Gursera joandakoak barrakoiaren errepeka bisitatzen. AITZIBER ETXAIZ



Valeriano Albiztur Mazkieran

Altsasuarra, metalurgialaria ogibidez, 1906ko apirilaren 4an jaio zen. Estatu kolpearen ondoren errepublikaren alde borrokatu zen eta, azkenean, beste hainbat altsasuarrekin batera Gurseko kontzentrazio eremuan bukatu zuen. Handik Okzitaniako Tolosara joan zen bizitzera. Naziek han harrapatu eta Vernet, Caserne Caffarelli, Bordele eta Mauthausengo kontzentrazio eremuetan ezagutu zituen. Azken horretan 1944ko irailaren 16an sartu zuten.

Javier Mazkieran Larraza

ANVko kide altsasuarra. Estatu kolpea jo zutenean 16 edo 17 urte zituen eta beste adinkide batzuekin batera Altsasutik hanka egin zuen. Iparraldeko eta Kataluniako fronteetan borrokatu zuen. Aurpegi tiro bat jaso zuen. Frantziar Argeles Sur Merko hondartza izan zen. 20 urterekin sartu zuten Gursen eta han teiltatu bat zutelako pozik zegoela esan zien senideei. Bizpahiru urte eman zituen esparruan eta txiripaz Mauthauseneko kontzentrazio eremura eramana izateaz libratu zen, baso lanetarako langile premia zuen Atharratzeko gizon batek kontratatu zuelako. Zuberoako herrian ezkondu eta 10 seme-alaba izan zituzten. Berak ezin izan zuen Altsasura bueltatu eta familia topaketak Hendaian edo Donibane Lohitzunen egin zituzten.



Gurseko hilerria bisitatu zuten larunbatean joandakoek. AITZIBER ETXAIZ

Jose Zelaia Agirre

Nekazaria eta CNTko kidea, Altsasun jaio zen. Zerbait gertatuko zen zurrumurrua bazebilen aurreko egunetan eta estatu kolpea jo zutenean, altsasuar askok bezala San Pedron elkartu eta handik Ataunera jo zuen. 26 urte zituen.

Eibarren arma fabrika bat asaltatu eta eskopetak bereganatu zituzten. Iparraldeko fronteetan CNTren batailoi batean aritu zen. Han eskopetak fusilengatik aldatu zituzten.

Asturiasko fronteetan zauritu zuten eta ordutik ospitaletik ospitalera ibili zen; Frantziara barkuz eraman eta gero Kataluniaraino. Alta ematekotan zirela, Ebroko fronte erori zen eta Frantziara alde egin behar izan zuen. Hondartza batean prestatutako eremu batean izan zuten, 1939an Gursera lekualdatu zuten. Bere koinatu bat Txilen bizi zen eta hark paperak tramitatu zituen Hego Amerikako herrialdera joateko.

Pablo Neruda poeta Txileko kontsul berezia zen Frantziar eta berak errepublikazaleak ateratzeko bi itsasontzi antolatatu zituen, haietako baten izena Winnipeg zen. Zelaia bestean joan zen. Txilen larruak egiten zituen fabrika batean lan egin zuen. 50ko hamarkada hasieran bueltatu zen. Altsasun bikotekidea opatu zuen eta biak elkarrekin Txilera ezkontzera bueltatu ziren. Han izan zuten familia. Zelaia eta familia 1967-68 aldera bueltatu ziren Altsasura.



Gurseko barrakoa. UTZITAKOA

Cristobal Zelaia Iriarte

Altsasun jaioa. Nekazaria eta CNTkoa. Estatu kolpeak Loiolako kuartelean soldaduska egiten harrapatu zuen. Kuarteleko buruzagiak kolpisten alde jarri ziren eta han ziren

menpeko guztiek hala egin behar izan zuten. Donostiako fronteetan errepublikaren alde borrokan zebilen bere koinatuaren kontra aritu zen. Soldaduskan luze izan zuten, bukatzean bandoz aldatu zen. Gerra akaberan Frantziara jo eta Gursen bukatu zuen. Handik herrira bueltatu zen.



Sakanako 28ak

| Herria | Izen-abizenak | Erakundea |
|----------------|---|-----------|
| Izurdiaga | Julio Monedero Simon | JSU/UGT |
| Irurtzun | Braulio Ilzarbe Jauregui | UGT |
| Irañeta | Victor Goñi Erbeti | STV |
| Uharte Arakil | Dimas Fernandino PerezFernandez Ayestaran | |
| | Luis Fernandino Perez | FUE |
| Etxarri Aranaz | Bonifacio Fernandez Ayestaran | UGT |
| | Luis Fernandino Perez | UGT |
| Altsasu | Valeriano Albistur Mazkieran | UGT |
| | Jose Celaya Aguirre | CNT |
| | Cristobal Celaya Iriarte | CNT |
| | Joaquin Etxebarria Imaz | UGT |
| | Jose Garrues Santesteban | UGT |
| | Jose Maria Gorospe Lezea | CNT |
| | Francisco Lecea Larraza | UGT |
| | Javier Mazkieran Larraza | ANV |
| | Domingo Otxoa Imaz | UGT |
| | Modesto Prieto Alvarez | JSU |
| | Esteban San Jose Gallego | NC |
| | Martin Soler Zanguitu | PSOE |
| | Enrique Urizar Zelaya | UGT |
| | Octavio Victoria Lacilla | PSOE |
| | Jose Zornoza Zanguitu | UGT |
| | Juan Zubiaurre Garcia | NC |
| Olatzagutia | Carmelo Gauna Malo | ANV |
| Ziordia | Valentin Aguirre Goikoetxea | UGT |
| | Francisco Arza Ondarra | |
| | Hilario Arza Ondarra | |
| | Blas Lategui Arozarena | PCE |



ASTEKOA

RAF ATXURI

Segur que tomba

Lerrock idazten ari naizen ordutik Guaixe irakurleen eskuetara iritsi bitarte zernahi gauza gerta daiteke Katalunian, hain baita bizia gertakizun esanguratsuen lasterra. Biharamun izerditsu eta dardaraz beterikoa da urriaren bikoa, baina batzuek elkar-irizketa eta "parlem" guztien iturburutzat jo zutena, hausnarke-rra egun bihurtu da.

Bada, azken igandeak eman duena gutxiak pentsa zezakeen alde aurretik. Kataluniar herritarren konpromiso, antolatze-gaitasun, ausardia eta irudimenak harriturik utzi du mundua eta uneoroko arazo eta zailtasunei irtenbidea aurkitu zieten arratsaldeko zortziak arte, dema adoz eta duintasunez atxikiz.

Espainiar botereak, ordea, inor gutxi harritu zuen, hain gutxi xarmatu, eta gurean honen ongi ezagutzen dugun egurraren jardun desafinatu eta garrantza eskaini zuen goizetik. Inperioaren kofradeek kondaira beltzari beste atal bat gehitu diote beren ibilbide ezinago tristean.

Boto-kutzak (bai, bahitu ez zituzten horiek itxi zirenean) Rajoik hitz sorta prefabrikatua bota zuen, aldarrikatuz, besteak beste, askoz gehiago izan zirela etxean gelditu zirenak bozkatzera joan zirenak baino.

Hobe luke "suflearen demokrata" horrek galdetzea zenbat bizilagun gelditu ziren etxean beldurrak eta izuak behartuta. Sutan probatzen da burdina eta espainiar botereen demokrazia maila agerian utzi zuen urriko lehen egunak.

Kataluniar ugariren auzolan paregabeak saria jaso du, "castellet"ean gora doaz eta "aleta" (haurrak gaina osatu ondorengo unea) falta zaie.

Presaka jardun eta errepublika laster aldarrikatu ala pazientziari eutsi eta txukun bideratu azken urratsa. Hara hor koxka!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne).
GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali.

Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak:
Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

ITURRASKARRI: bideak eta arraskak berritzeko egitasmo soziala

SAKANAKO GIZARTE ZERBITZUAK

Iturraskarri izaera sozialeko proiektu bat da, eta Irurtzungo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko Gizarte Enplegu Babestuko proiektuan parte hartzen dutenei prestakuntza izaerako lanak eskaintzea du helburu.

2006. urtean jarri zen martxan, eta 12 urte hauetan, lan ezberdin asko burutu ditugu eskualdeko herrietan, esaterako: garbitokiak, zubiak, iturriak... berritu, herriak lotzen dituzten bideak garbitu, markatu eta mantentze-lanak egin...

Aurten, berrikuntza moduan Iturraskarriko bideetarako babesleak bilatzeko kanpaina jarri dugu martxan. 35 babesle behar ditugu 170 km inguru

dituen sare osoa lotzeko. Babesle bakoitzak honako konpromiso hau hartu beharko du: bidearen 5 km aukeratu eta urtean behin bertatik txango bat egin ondoren, guri zein egoeratan dagoen jakinarazi beharko digu -margo-markak berritu behar diren, zuhaitzen bat erori den, lurra erori den, sasiak kendu behar diren...- maiatza baino lehen. Animatu eta izan zaitez babesle!

Horretaz gain, aurten hainbat txango antolatu ditugu Iturraskarriko bideetan barna, Irurtzungo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea osatzen duten udal guztiak elkartzuz. Bide hauek, Donejakue bideak, errege-bideak,

errege-abelbideak, suebakiak, gurdibideak eta xendak dira, eta horiek guztiak historia, bitxikeria, edertasun eta ezagutza ugari gordetzen dituzte bere barnean.

Horrelako txango batean parte hartzeko azken aukera igande honetan, urriak 8, izango dugu.

Goizeko 9:00etan Irurtzungo plazatik aterako gara eta 18 kilometro inguru izango ditugu aurretik.

Bidean zehar, proiektuaren eta historiaren inguruko azalpen batzuk izango ditugu, eta bukaeran hamaiketako egonen da Irurtzunen bertan.

Anima zaitez! giro ederra izango dugu! Apuntatzeko **639 127 271** telefonora deitu.

OBJEKTIBOTIK

Gidoi-forumean luze hizketatu ziren

Joseba Salegi zinemagileak *Camino de caminantes* gidoia idatzi du. Jendeak irakurtzeko liburutegian eta kopia-dendetan utzi zuen. Jendeak harrera ona egin zion gidoiari eta testuaren inguruan iritzia partekatzeko gonbidapena egin zien. Herenegun 35 pertsona bi orduz aritu ziren gidoiaz. Anabel Arraizak eta Amelia Lapuentek pasarteak irakurri zituzten.



DAVID IRIGOIEN ROMERO

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gixane Andueza Goikoetxea
admin@guaixe.eus

Kolaboratzailea:
Rebeka Mendoza

Zuzentzailea:
Pabli Flores
Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107
618 882 675
661 523 245

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus

Maketatzailea:

Ruben Imaz Alcaide
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus

Guaixek ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Zurumurrueen kontra, agente aktibo

Jendarteko talde batzuek zabaldu diren estereotipoen, aurreiritzien eta zurumurrueen aurrean kontzientzia kritikoa sortzeko eta haiei aurre egiteko ikastaroa antolatu du Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak *Zurumurrueen kontrako agenteak* ikastaroa antolatu du. Bego Zestau Baraibar teknikariak azaldu duenez, ikastaroan "zurumurrueak hausteko, edota gutxienez horien inguruan zalantza sortzeko estrategiez hitz egingen dugu. Beste jatorrietako edo kulturetako pertsonen inguruan esaten diren estereotipo, aurreiritzi eta zurumurrueak egonkortzen dituzten hizkeren inguruan, eta pertsona horiengan duten eraginaren inguruan kontzientzia kritikoa bat" piztu nahi du ikastaroak.

Horretarako, ikastarora doazenak eztabaidarako gaitasuna hobetu eta emaitza hobeak lortzeko estrategiak ezagutuko dituzte. Baina helburua ere bada zurumurrueen kontrako agenteak trebatzea: "egunerokoa gure inguruan entzuten ditugun zurumurrueak pixkanaka hausten joateko, hartara diskriminazioaren oinarrietako bat apurtuz".

Horretarako, Zestauk azaldu duenez, "beste pertsonetako dugun ezagutza hobetu, aniztasunean elkarbizitza errazteko" bitartekoak emanen dira. Gainera, "zurumurrue, estereotipo eta aurreiritzien inguruan hausnartu, eta nigandik desberdina denarekiko ditugun aurreiritzien oinarrian hausnartuko da". Bestetik, zabalduen dauden zurumurruei aurre egiteko estrategiak eskainiko dira, komunikazio eta estrategia emozionalak landuz. Horrekin batera, Nafarroako Zurumurrueen Kontrako Sarera



Sakandarrak plazan, elkarrekin hitz egiten.

"BESTEEKIKO DUGUN EZAGUTZA HOBETU, ANIZTASUNEAN ELKARBIZITZA ERRAZTEKO"

gehituko diren zurumurrueen kontrako agenteak trebatu nahi dira.

Ikastaroa

Nafarroako Unibertsitate Publikoako Gizarte Laneko irakasleek ibarrean egin duten ikerketaren aurkezpena egingen dute aurreneko saioan. Bigarrenean, berriz, Raquel Moreno soziologoak eta giza parte hartzean espezialistak zurumurrueak kudeatzeko estrategia komunikatibo eta emozionalak azalduko ditu. Azken

saioan, berriz, estrategiak praktikan nola jarri eta zurumurrueen kontrako agente nola bihurtu azalduko dute, Zurumurrueen Kontrako Nafar Sarearen aurkezpenarekin batera. Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak antolatutako trebakuntza saioak azaroaren 10ean, 11n eta 17an izanen dira, ostiraletan 17:00etatik 20:00etara eta larunbatean, berriz, 10:00etatik 14:00etara. Guztira 10 orduko iraupena du eta Mank-ek Lakuntzan duen egoitzan egingen da. Doakoa da.

Izen ematea

Azaroaren 7ra arte egin daiteke, immigrazioa@sakana-mank.eus edo 648 070 710 bidez.



Unanurrak mediku kontsultategi ondoan. ARTXIBOA

Kontsultategietarako laguntza eman du Osasunbideak

Irurtzungo osasun eskualdeko 6ri, Etxarri Aranazko 8ri eta Altsasuko 2ri eman dizkio laguntzak

SAKANA

Ibarreko 16 mediku kontsultategien funtzionamendu gastuetarako 37.972,52 euro eman ditu Osasunbideak. Kontsultategi horiek udalenak edo kontzejuek dira eta haiek arduratzen dira osasun azpiegitura horiek

garbitzeaz, argindarra, berogailua eta ura ordaintzeaz. Baita haren mantentzeaz eta mankomunitateari ordaindu beharrekia ere. Osasunbideak kontsultategi bakoitzaren azaleraren arabera ematen du diru-laguntza, 35,03 euro metro karratuko.

Kontsultategiendako ekarpena

| Osasun eskualdea | Kontsultategia | Dirua |
|------------------|----------------|----------|
| Irurtzun | Etxarren | 1.471,26 |
| | Hiriberri | 1.541,32 |
| | Ihabar | 350,30 |
| | Irañeta | 1.261,08 |
| | Uharte Arakil | 5.674,86 |
| | Arruazu | 1.576,35 |
| Etxarri Aranatz | Lakuntza | 2.907,49 |
| | Arbizu | 2.767,37 |
| | Unanu | 1.471,26 |
| | Dorrao | 1.681,44 |
| | Lizarraga | 1.821,56 |
| | Bakaiku | 2.417,07 |
| | Iturmendi | 2.732,34 |
| Altsasu | Urdiain | 2.031,74 |
| | Olatzagutia | 6.270,37 |
| | Ziordia | 1.996,71 |



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com





Etxe pasiboetarako
s 9000 egokia



Isolamendu nukleo
indartsua



Beirak lehorrean
jarrita



Aparteko azala
koloreztatua

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Geroz eta gehiago gaude

Sakanako
gida

2018

Zu ere animatzen al zara?



Iturraskarri proiektua ezagutzeko irteera

Iturraskarri egitasmoaren bidez pertsonak trebatzeko eta prestakuntza jasotzeko hainbat lan eskaintzen dira. Haiek egindako lanak ikusteko aukera emanen du iganderako antolatutako irteerak, bostetan azkena dena.

ARAKIL / IRURTZUN

Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak Babestutako Gizarte Enplegu proiektua da Iturraskarri. Haren bidez trebatzen diren pertsonak komunitatearendako onuragarriak diren lanak egiten dituzte, esaterako: bideak, askak, garbitokiak eta bertako ondarearen adierazle direnak zaharberritzen edo txukuntzen dituzte. Bertako ondareari balioa eman eta turismoa sustatzeko balio du haien lanak.

Egindako lan guztia ezagutzeko mankomunitateak, besteak beste, lan horiek hartzen dituzten bost mendi ibilbide antolatu zituen. Aurreneko biak Arruazu eta Egiarreta eta Egiarreta Errotz artekoak izan ziren. Larraun aldean beste bi irteera egin ondoren, Irurtzunen hasi eta bukatzen den mendi irteera batekin despedituko da Iturraskarri ibilaldien egutegia.

Latasa, Eraso, Zarrantz, Aginaga, Aizkorbe eta Irurtzun lotuko ditu 09:00etan, Irurtzungo plazatik abiatuko den martxak. Bidean ibiltariak egindako lanari buruzko azalpenak jasoko dituzte eta, akaberan, auzatea izanen dute. Orain arteko ibilaldiak giro onean egin dira. Parte hartzeari dagokionez, ba-



Iturraskarriko txango batean Egiarretako garbitokiraino iritsi ziren. UTZITAKOIA

tzuk besteak baino jendetsuagoak izan dira. Eguraldiak irteera bakar batean ez zuen lagundu. Baina askok errepikatze gogoz gelditu dira.

Bide babesleak

Iturraskarriko arduradunek 170 km-ko bide sarea egoera onean mantendu nahi dute. Horretarako, konpromiso erraz bat hartuko duten 35 babesle lortu nahi dituzte.

Haien egitekoa aukeratutako bide zatian urtean behin buelta bat ematea eta hura zein egoeratan dagoen jakinaraztea da.

Hau da, margo-markak berri behar diren, zuhaitzen bat erori den, lurra erori den edota asiak kendu behar diren esatea.

Iturraskarri proiektua 2006an abiarazi zuten. 12 urte horietan garbitokiak, iturriak, askak, konjurutokiak, ferratokiak, korrika-lekuak eta berdeguneak berri ditu.

Horretaz aparte, eskualdeko herri guztiak lotzen dituzten bide asko, bide berdeak, Donejakue bidea, errege-bideak, abelbideak, gurdibideak eta xendak garbitu, markatu eta bertan mantentze-lanak egin ditu.

Gaztetxeak ostegunean 27 urte beteko dituen

Altsasuko gaztetxea, 27 urte historia egiten leloa aukeratu du gazte asanbladak urteurrenerako.

ALTSASU

Altsasuko Gazte Asanbladak prestatutako egitaraua atzo abiarazi zuten, etxearen okupazio egunaren 27. urteurrenean. Txupinazoaren eta merenduaren ondoren kontzertua izan zen.

Gaur, 17:00etan, haurrendako jolasak izanen dira Foru plazan, ordu erdi geroago Hodei magoaren txanda izanen da. 21:00etako pintxo-poteak 22:30eko *Amico* antzezlanari emanen dio txanda. Bihar kalderete lehiaketan par-

te hartzen duten koadrilak 11:00etan hasiko dira haiek prestatzen. 14:30ean jakinen da zeinek irabazi duen. Mahaitik jaso eta Eonian elektrotzarangarekin kalejira egingen dute. 21:30ean magrak afaltzeko aukera izanen da. 22:00etatik dantzaldia izanen da gaztetxean.

Asteartean, Gasteizko Erreka-leon auzoari buruzko hitzaldia izanen da Altsasuko gaztetxean. eta asteazkenean, ohi bezala, asanblada. Azken bi hitzorduak 19:30ean dira.

Pedagogia berrikuntza proiektua ezagutzera Ripolletera

El Martinet eskola publikoa bertatik bertara ezagutzeko bisita antolatu dute lastailaren 21erako.

SAKANA

Bartzelonako Ripollet herriko El Martinet eskola publikoan haurtzaroak berezko kultura duela aitortu dute. Abiapuntu horretatik alaitasunari eta ongizateari lotuta dagoen ikaskuntza mota bat garatu dute, zeinetan haurrak erabateko protagonistak diren. Esperientzia hori bertatik bertara ezagutzeko bisita antolatu da.

Ainara Martin Bustok, Arbizuko Herri Eskolako zuzendariak, azaldu digunez, "09:00etatik, goiz osoan aukera izango dugu bertako espazioak, materialak, giroak, ikusteko eta sentitzeko nahiz bertako irakasleekin gozatzeko". Arbizun eta Sakanako Eskola Txikietan Dumas proiektua garatzeaz aparte ikastetxe berria izanen dute heldu den ikasturtean. Horregatik, "berrikuntza pedagogikoen garai ho-

netan horrelako eskolak ikustek beste aukerak posible direla amestu eta errealitate bilakatzen laguntzen dute, beraien espazioak eta ikasteko giroak oso pentsatuak daudelako".

Sakanako guraso eta irakasleei irekia dagoen deialdia da. Kataluniako eskolak ibarreko ordezkariak hartzen duen lehen aldia ez da izanen. Joan den urteko udaberrian 78 sakandar izan ziren pedagogia proiektua ezagutzen.

Izena ematea

cparbizu@educacion.navarra.es e-postan egin daiteke hilaren 11 baino lehen. Autobusa behar den adierazi behar da. Izena emandako jende kopuruaren arabera autobusa antolatuko da. Bisitak 30 euro balio ditu eta izena ematean ordaindu behar-ko da.

Estatuak ibarrean lau jabetza dituela jakinarazi du

Jon Iñarritu Garcia EH Bilduko senatariariak Estatuako Administrazio Nagusiak Nafarroan zituen eraikinen inbentarioa eskatu zuen eta udaberri hasieran jaso zuen erantzuna. Estatuak emandako erantzunean herrialdean ehun bat jabetza dituela esan zuen.

Haietako lau Altsasun: gaur egun UGTk erabiltzen duena,



Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren beste bi eraikin eta Guardia Civilaren kuartela. Azken erakunde horrek Irurtzunen ere kuartela du eta ez da zerrendan agertzen.

Unanuk Sorterrian fest ospakizuna hartuko du bihar

Elkartasunaren indarrez, askatasunera! leloa du Unanun bihar ospatuko den jaialdiak: Sorterrian fest. Ospakizuna Unanuko, Dorraoko eta Iruñeko Arrosadiako eta Azpilagañako auzotarrak antolatu dute. Iñaki Marinen askatasuna ospatuko dute. Horretarako, besteak beste, musika talderen batek zor zion kontzertua eskainiko dio.

Prestatu duten egitaraua 18:00etan hasiko dira haren aurkezpena eginez, plazan. Hura bukatu eta segituan dantzak izanen dira. 19:00etan Malastras taldearen kontzertua izanen da. Hura bukatuta kalejira egingo da auzatea izanen da eta talde argazkia egingen dute. 21:30etan herri-afaria izanen da. Gauerdian Embajada, Josu Jon Imas eta Skabidean taldeen kontzertuak hasiko dira. Ondoren, dj-kin ordu txikiak arte gaupasa izanen da.

D ereduak 0,9 puntu egin du gora ikasturte berrian

Ibarreko ikasleen % 82,4 D ereduan matrikulatuta dago. A ereduan % 13,9 eta B ereduann % 4.

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak hizkuntza ereduak izandako matrikulazioaren berri eman du. Hezkuntza eta soziolinguistikako adituek nabarmentzen dutenez, euskarazko ereduak da hizkuntza ikaslea bermatzen duen bakarra. Haur Hezkuntzan (HH) D ereduak irakaskuntzak ikasleen % 85,4 hartzen du (1,1 gora). Lehen Hezkuntzan (LH) ikasleen % 82,1 ari dira euskaraz ikasten (0,2 gutxiago) eta, azkenik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) % 78,9 ari da D ereduan (1,4 gehiago).

Zikloka

HHn 632 umeetatik (aurreko ikasturtean baino 29 gutxiago) %85,4k D ereduan ikasten du, hau da, 540 ikaslek. Pasatako ikasturtearekin alderatuta euskarazko ereduak 1,1 puntu egin ditu gora, baina 17 ikasle gutxiago daude. B ereduak % 6ko matrikulazioa du, 38 ikasle (1,1eko jaitsiera eta 9 ikasle gutxiago). A ereduari dagokionez, matrikulatuen % 8,6 hartzen ditu, 54 ikasle (ehunekoan aldatarik ez eta 3 ikasle gutxiago).

Bederatzi ikasturteren ondoren **LHn** euskarazko ereduak behe-



Ikasleak autobusera igotzen. ARTXIBOA

ra egin du portzentajea, 0,2 puntu, matrikulazioaren % 82,1 hartuz. Hala ere, LHn D ereduak ikasle kopuruak gora egin du, 20 gehiagorekin 1.148ra iritsiz. A ereduan joan den urteko ikasle kopuru bera ari da, 181, baina ehunenekotan pixka bat jaitsi da % 13an gelditu (0,2 puntuko

jaitsiera). B ereduan ehunekoan eta ikasle kopuruan gora egin du, %4,9 eta 68 ikasle. (0,4 puntu eta 7 ikasle gehiago). Bigarren urtez % 5etik behera gelditzen da. LHn guztira 1.397 ikasle ikasten ari dira.

D ereduak salto handia egin du **DBHn**: 576 ikasle ari dira

euskaraz ikasten, % 78,9, hau da, 26 ikasle eta 1,4 puntu gehiago. Euskarazko ereduak DBHn ikasleen % 80 hartzetik gero eta gertuago dago. Kopuru hori beheko hezkuntza mailetan aspaldi lortu da. A ereduak matrikulazioa % 21,1 da eta 154 ikasle ditu (1,4 puntu eta 6 ikasle gutxiago). DBHn 730 ikasle daude.

Orokorrean

Sakanan, hiru zikloetan 2.759 ikasle ari dira ikasten, aurreko ikasturtean baino 18 gehiago. Euskara Zerbitzuak zabalduko datuen arabera, D ereduan 2.264 ikasle ari dira, %82,05 (29 ikasle gehiago eta 0,55 puntu gehiago). A ereduak 389 ikasle ditu, % 14,09 (9 ikasle eta 0,41 puntu gutxiago). Azkenik, B ereduan 106 ikasle ari dira ikasten, % 3,84 (2 ikasle gutxiago eta 0,16 puntu gutxiago).

Hizkuntza ereduaren bilakaera

| Ikasturtea | Haur Hezkuntza | | | | | | Lehen Hezkuntza | | | | | | DBH | | | |
|--------------|----------------|------|---------|-----|---------|------|-----------------|------|---------|-----|---------|------|---------|------|-----|------|
| | A | | B | | D | | A | | B | | D | | A | D | | |
| | Kopurua | % | Kopurua | % | Kopurua | % | Kopurua | % | Kopurua | % | Kopurua | % | Kopurua | % | | |
| 97/98 | 126 | 24,1 | 0 | 0 | 396 | 75,9 | 365 | 32,5 | 0 | 0 | 758 | 67,5 | 168 | 35,8 | 301 | 64,2 |
| 01/02 | 111 | 20,9 | 0 | 0 | 420 | 79,1 | 320 | 28,8 | 0 | 0 | 792 | 71,2 | 262 | 38,7 | 419 | 61,3 |
| 05/06 | 97 | 18,2 | 0 | 0 | 437 | 81,8 | 278 | 24,7 | 0 | 0 | 876 | 75,9 | 235 | 34 | 456 | 66 |
| 06/07 | 98 | 17,5 | 16 | 2,9 | 445 | 79,6 | 272 | 23,3 | 14 | 1,2 | 883 | 75,5 | 216 | 32 | 460 | 68 |
| 11/12 | 79 | 11,7 | 29 | 4,3 | 568 | 84 | 200 | 15,8 | 89 | 7 | 974 | 77,1 | 176 | 24,5 | 542 | 75,5 |
| 12/13 | 85 | 11,6 | 34 | 4,6 | 616 | 83,8 | 201 | 15,9 | 67 | 5,3 | 557 | 75,8 | 178 | 24,2 | 557 | 75,8 |
| 13/14 | 68 | 9,8 | 45 | 6,5 | 583 | 83,7 | 195 | 15 | 65 | 5 | 1039 | 80 | 177 | 23,4 | 578 | 76,6 |
| 14/15 | 69 | 9,9 | 41 | 5,9 | 585 | 84,2 | 184 | 13,9 | 69 | 5,2 | 1069 | 80,9 | 161 | 22,1 | 567 | 77,9 |
| 15/16 | 56 | 8,4 | 40 | 6 | 573 | 85,6 | 184 | 13,6 | 71 | 5,2 | 1101 | 81,2 | 159 | 22,2 | 558 | 77,8 |
| 16/17 | 57 | 8,6 | 47 | 7,1 | 557 | 84,3 | 181 | 13,2 | 61 | 4,5 | 1128 | 82,3 | 160 | 22,5 | 550 | 77,5 |
| 17/18 | 54 | 8,6 | 38 | 6 | 540 | 85,4 | 181 | 13 | 68 | 4,9 | 1148 | 82,1 | 154 | 21,1 | 576 | 78,9 |

Gizarte ekonomia jardunaldi batean aztergai

Sakanako Garapen Agentziak (SGA) gizarte ekonomiaren berri emateko jardunaldia antolatu du. SGako industria eta zerbitzu teknikari Odei Arregi Azpitartek esan digunez, "hainbat enpresek euren arrakasta kasuak aurkeztuko dizkigute eta gizarte ekonomiaren ideiak bultzatuz beren jardura nola eraldatu duten azalduko dute". Arregik gaineratu duenez, "eraldaketa horrek Sakanak aurrera egin beharreko erronkei erantzun desberdin bat emateko aukera izan daiteke". Lakuntzako kultur etxean asteazkenean, 09:00etatik aurrera.

CITROËN JUMPY BERRIA EZER EZ DA EZINEZKO

3 neurri: XS - M - XL

Altuera 1,90 * | ALBOETAKO ATEAK ESKU LIBRE IREKIERA IRRISTAKORRAK MODUWORK **-ekin KARGARAKO 4m BAINO GEHIAGOKO LUZERA

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

CITROËNEK nahiago TOTAL *FURGONERAKO XS eta M neurriak aukeran eta M eta XL Combirako. **XL neurrian. KONTSUMO MIXTOA (100KM/L) / CO2 ISURIA (KM/G): 5,1/5,6 - 133/148



facebook twitter youtube googleplus citroen.es

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A. • ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • www.autsanmiguel.com



Garilean egindako manifestazioa.

Europak Altsasukoa gertutik segituko du

Aztertuko du zigoren proportzionaltasuna eta oinarritzko eskubideak betetzen diren.

ALTSASU

Ferietako liskarragatik auzipe-tutako gazteen gurasoek ate asko jo dituzte. Batzuk ez dira zabaldu, beste batzuk bai. Horietako azkena joan den ostiralean zabaldu zen. Europako Batzordeko lehen lehendakariorde Frans Timmermansena. Azaldu duenez, Altsasuko auzia gertutik segituko du. Holandarrak esan duenez, epai-prozedurak “Europako tratatuak eta legedia urratuz gero, neurri egokiak hartzeko eskubidea gordeko” du.

Timmermansenek gogorarazi du Europako Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Kartak “zigorrek ezin direla zigortutako delitu penalarikiko neurrigabeak izan”. Azaldu duenez, “Karta betetzen dela bermatzeko Europako Batzordeak beharrezkoa denean eskura dituen tresna zuztiak erabiltzen ditu”. Zigor auziak estatu kideen eskumena direla ohartarazi badu ere, haiek Karta errespetatu beharra dutela esan du. Eta ohartarazi du “pertsonen jarritako zigorrak zigortuak izan behar duten akzioekiko proportzionalak izan behar” dutela. Marina Albiol (IU), Xabier Benito (Ahal Dugu), Izaskun Bilbao (EAJ) eta Josu Juaristi (EH Bildu) eurodiputatuak emandako erantzuna da.



Sindikatuak deituta kontzentrazioa egin zen Altsasuko udaletxe aurrean.

Sindikatuak Kataluniari elkartasuna adierazi diote

Asteartean, atsedendietan, bilkurak egin ziren lantokietan eta eguerdian kontzentrazioa Altsasun

SAKANA

ELA, LAB, ESK, Steilas, EHNE, Hiru eta Etxalde sindikatuak deituta Kataluniari elkartasuna azaltzeko kontzentrazioak egin ziren lantokien aurrean atsedendaldi garaian asteartean. Ordu batean Altsasuko udaletxe parean kontzentrazioa egin zuten. *Catalunyan nahiz Euskal Herrian herriak erabaki* lelopean izan zen mobilizazioa. Gorka Vierge ELAko kidearendako igandean Katalunian gertatutakoak “agerian utzi du Espainiar estatua- ren joera antidemokratikoa. Sekulako bortizkeria erabili zuten demokrazia eskaintzen zutenen aurrean”. Hori guztia salatzen deitu zituzten mobilizazioak, Euskal Herriatik Kataluniara oihartzuna heltzeko asmoarekin”. LABeko Gaizka Uhartek lantokietatik hainbat elkartasun mezu eta kontzentrazio egin zirela azaldu zigan.

“Gaur Katalunian greba orokorra dago eta Euskal Herriko langileok elkartasuna adierazten ari gara, guk ere herri honetan erabaki nahi dugulako”.

Uhartek esan zuenez, “Kataluniaren auzia da 1978ko erregimena auzitan jartzea. Euskal Herrian gure nazio aldarrikapenak mahai gainean daude. Jarraituko du Kataluniakoak eta jarraituko du Euskal Herrian gure eskubideen defentsa. Ez dakigu hemen bigarren foku bat zabalduko den, baina, behintzat, langileok behar dugu erabakitze eskubidea beste erdu bat erakitzeke”. Viergek gaineratu zuenez, “oso fase erabakigarrian gaude. Aldi berean, nik uste dut, ilusioa sortu dela, pizten ari dela jendearengan. Ilusio hori ere saiaturko gara zabaltzen gure herri eta auzoetan”.

Astearte gauean, bestalde elkartze zaratatsuak izan ziren.

Andra Mari ikastolak
3 langile finko
behar ditu garbitasunerako

Horrekin batera, ordezkapeneta-
rako lan-poltsa osatuko da. Bidali
CVa euskaraz argazkiarekin eta
“Lan-Bizitzaren agiria”
etxarri@ikastola.eus helbidera; gaia
“Garbitasun-Lanpostuak” dela adie-
raziz edo ikastolako idazkaritzan
aurkeztu urriaren 17rako. Irizpideak
eta egutegia Andra Mari ikastolaren
web orrialdean egongo dira ikusgai
www.andramariikastola.eus.

ANDRA
MARI
KASTOLA



Motxiladun umeetako batzuk. WWW.SARE.EUS

Hezkuntza komunitatera motxiladun umeengatik

Ume horiek ama-aita kartzelan duten 18 urtez azpiko 113 haur eta nerabeak dira.

SAKANA

Euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko Sakanako Sare Herritarrak haurren eta nerabeen hezkuntzan lanean ari diren irakasle, psikologo eta pediatrikari zuzenduriko ekimena martxan jarri du. Profesional horiei guztiei kolektibo horretako preso eta iheslarien seme-alabei erreparatzeko eskatu die Sarek, “orain arte nahiko ezkutu” egon delako.

Sakanako Sare Herritarrek haur eta nerabe horiei “motxiladun ume” deitzen diete, eta “motxila horiek euren gurasoak ikusteko egin behar izaten dituzten milaka kilometroren isla dira. Egunerokoan gurasoen hutsunearekin bizitzeak zama afektibo handia eragiten diela ukazinezko errealitatea da, gainera”. Sakanako Sare Herritarretatik diote 113 haur eta nerabe horiei “euren gurasoen

ondoan hezteko eskubidea ukatzen” zaiela. Eta behin eta berriro galdera bat errepikatzen dutela gaitzatu du: zergatik?

Hezkuntza irakasle, psikologo eta pediatrikari haurren heziketan, aisialdian, garapenean, osasunean... lotura dutenez, Sakanako Sare Herritarrak ibarreko haur-nerabe horiek gurasoekin hazteko duten eskubidearen aldeko lanketa egin nahi du. Sakanako ikastetxeetako irakasle, psikologo eta pediatrikari atxikimendua eskatuz orriak banatu dizkiete. Eta ibarretik kanpo lan egiten duten hezkuntzako profesionalak bat egiteko e-posta helbide bat eman du: etxarri-sare@gmail.com.

Sakanako Sare Herritarrak jasotako atxikimenduak azaroaren 18an publiko egingen ditu Sakanako Sare Herritarrak Etxarri Aranatzeko antolatutako agerraldi batean.

nc
nerea cenoz
nutrición

Giza Elikaduran eta Dietetikan Diplomatu
(Nafarroako Unibersitatea)

Pisua kontrolatzeko dietak:

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

Patologia ezberdinetarako dietak

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza

info@nereacnoz.com
nereacnoz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan
Estafeta 16, atzea · Lakuntza
(Bostekoa masaje zentroan)

Ziza eta landarez betetako plaza

Igandean erakusketa mitologikoa eta botanikoa antolatu dute, 10:00etatik 17:30era 240 bat ziza espezie eta beste horren beste landare ikusteko aukera izanen du Etxarri Aranazko plazatik pasatzen den guztiak.

ETXARRI ARANATZ

Urtero errepikatzen da baina urtero jakinmina pizten jarraitzen du. Etxarri Aranatzen igandean antolatu duten ziza eta landareen erakusketa mitologikoaz ari gara. Hartzabal elkarteak eta mikologi lantaldeak prestatuta, goizeko 10:00etatik 17:30era bitartean gure basoetan dauden mota guztietako zizak eta landareak gertutik ikusteko aukera izango dugu.

Ventura Mundiñano dabil, beste behin, antolaketa lanetan. "Hamarren bat inguru aritzen gara. Patxi Irastorza, Jose Ramon Beloki, Fernando Goia, Angel Mari Goikoetxea, Txomin Garzandia, Juan Mari Aiestaran... Emakumeak ere, Silvia Mauleon eta Oihane Razkin biologoak... eta laguntzera hurbiltzen diren beste hainbat" azaldu digu Mundiñanok.

240-250 espezie ezberdin

Aurten ziza asko daudela adierazi digu etxarriarrak. "Zizendako eta landareendako urte ona da hau. Pentsatzen dut, urtero moduan, 240-250 ziza espezie ezberdin eta beste horrenbeste landare ezberdin biltzea lortuko dugula" gaineratu du.

Erakusketa antolatzaileak bihar, larunbatean, joango dira



Urtero bezala jendea bilduko da azokaren bueltan. ARTXIBOA

basora, goizez, eta arratsaldean goizez bildutakoa sailkatzeko bilduko dira, estalopeko udal gela batean. Jasotakoa identifikatu eta bakoitzari bere fitxa jarriko diote. Zizen kasuan, izen zientifikoarekin batera, baldin badu, euskarazko izena jarriko zaie, eta landareei, izen zientifikoaz eta euskarazkoaz aparte, zertarako erabiltzen den ere gaineratuko dute. "Badaude ere, partikularrak, eurak bildutakoa gure erakusketara ekartzen dutenak. Edonork egin dezake; zerbait berezia badu edo zerbait

bildu badu, ekar dezala, erakusketan jarriko dugu" adierazi du.

Mahai luzeetan jarriko dute erakusketa, bildutako guztia eroso ikusteko. Zenbat ziza bilduko dituzten galdetuta ondokoa dio Venturak: "Urtero galdera berdina. Kopuruari baino, barriedeari begiratzen diogu guk, espezie ezberdinak hartzeari. Ahalik eta gehien biltzera joango bagina milaka ekarriko genituzke. Baina kontua ez da hori; kontua bariedade ezberdinak ekartzea da, itxuran, baina kopurutik pasatu gabe".

Altsasuko mikologia jardunaldiak, astelehenetik aurrera

Altsasuko mikologia elkarteak prest ditu aurtengo mikologia jardunaldiak. Hiru hitzaldiz eta erakusketaz osatuta dago elkarteko kideek prestatutako egitaraua.

Astelehenean *Mikologia, lehen urratsak* hitzaldia emanen du Begoña Ojerrek. Asteartean Jose Mari Ausin altsasuarrek *Antzina zer pentsatzen zuten zizei*

buruz? Ohiko nahasmenak hitzaldia eskainiko du. Hitzaldi zikloa asteazkenean despedituko da Roberto Fernandez Sasiaren *Hiriguneetako zizak* hitzaldiarekin. Saio guztiak Iortia kultur gunean dira eta 19:30ean hasiko dira.

Altsasuko mikologia elkartearen jardunaldiak despeditzeko zizen eta ondoen erakusketa izanen da Garbitoki eraikinean. Ferietako domekan izanen da, hilaren 15ean, eta 09:00etatik 14:30era izanen da ikusgai.

BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.
948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

**Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margotzea**

Sexu indarkeriagatik bi gizonetako atxilotuta

Bata bikote ohiari mehatxu egiteagatik atxilotu dute eta bestea emazteari tratatu txarrak emateagatik

ALTSASU

Foruzaingotik adierazi dutenez, azken egunotan Altsasun bi gizonetako atxilotu dituzte, emakumearen kontrako biolentziagatik. Batetik, 31 urteko gizonetako atxilotu dute, bikote ohiari etengabeko mehatxuak eta kontrola jazarpena egiteagatik, Foruzaingotaren Herritarrendako Arreta Bulegoan saketatu jaso eta gero.

Eta, bestetik, 44 urteko altsasuarra atxilotu zuten, emazteari jo eta gero. Banaketa prozesuan dago bikotea. Biktimaren



etxera joan ziren Foruzainei jasaten ari zen tratatu txarren berri eman eta gertakariak salatzen zuten asmoaren berri eman zien polizia.

TARTEAN testora
DOK PATXI TILLERIA
MUSIKA: JOAN ORRIZA
ITZULI: MIREIA MARTINEZ PATXI TILLERIA
KIDU BERRIK: AURRIAN GARCIA DE LOS ALZOS MARIA ARRIAGA IÑAN ALLEN

EZ DOK HIRU

Mank

**URRIAREN 21ean (LARUNBATAREKIN)
ARRATSALDEKO 19:30ean
ALTSASUKO
IORTIA KULTUR GUNEAN**

Jon Lakuntza, M^a Carmen Arbizu, Karmele Marañon, Juan Migel Flores, Monika Etxeberria eta Aizaga Zeberio.

Txistorra egun batez protagonista bihurtuta

Txistor Egunaren bederatzigarren edizioa hartuko du igandean Arbizuk. Txistorraz aparte hura egiteko erabiltzen den txitxia ere dastatzeko aukera izanen da. Eta egunaren irudia duen poltsak salgai izanen dira, erosketak eramateko

ARBIZU

Txerrikiarekin egindako produktua, txistorra izanen da bihar Arbizun protagonista. Eta harekin batera, Txistor Eguna posible egiten duten arbizuarrak, haien auzolanik gabe festa ezinezkoa litzatekeelako, Monika Etxeberria zinegotziak aitortu duenez.

Arbizu, Flores eta Laket herriko txistorra ekoizleak dira festaren zutabea. Haiek emandako ia 100 kilo txistor banatuko dira plazan (pintxoa eta baso bat ardo 2 eurotan). Aurten, gainera, txitxia dastatzeko aukera izanen da, "gustatzen zaigulako urtero zerbait berri probatzea".

Kale Nagusia 30 salmahai hartuko dituen azokan bihurtuko da eta artisauek ondutako piperrak, gazta, pastelak, ezta... dastatu eta erosteko aukera izanen da. Azokaren bi muturretan antolakuntzak oihalezko poltsak bi eurotan salduko ditu. Txistor Eguneko logo bat dute. Bi helburekin atera dituzte poltsa

horiek. Batetik, egunaren propaganda eta oroigarria izatea, eta, bestetik, plastikoaren erabilera gutxitzea. Poltsen inguruko iritziak bilduko dituzte, ideia egokia den edo ez jakiteko.

Erakusketak

Txistor Eguneko ezinbesteko zati dira prestatutako hainbat erakusketa. Garai batean txistorrak eta tripotak etxean nola egiten ziren erakutsiko du herriko emakume talde batek, eta tripotak dastatzeko aukera izanen da.

Beste erakusketa batzuetan txantxior opilak, sagardoa eta sendabelarrez bertan egiten den ukendua prestatuko dituzte. Dena ikusteko eta dastatzeko modukoa. Euskal txerriak ikusgai egonen dira eliza ondoko zotolan. Ezin aipatu gabe utzi ehoziak egitera etortzen den emakume taldearen trebeziak. Juananeko gaztandegiko artzainak gazta egiten arituko dira jendaurrean.

Txistor-pintxoaren lehiaketak errezeta berri bat sarituko du. Epaia emanen dutenak honakoak izanen dira: Javier Diaz (Alhambra jatetxekoa), Fernando Flores (Enekorri jatetxekoa), Manoli Arza (Artza jatetxeko sukaldaria izandakoa), Nekane Zubizarreta (Altsasuko Basomutur jatetxekoa) eta herriaren ordezkaria Inexi izanen da, bizi guztian ostalaritzarekin lotura izan duena.

Txistor Egunaren zati handi bati trikitiak jarriko dio soinu banda. Goizean 60-80 musikari hariko dira herrian barna eta arratsaldean Nafarroako eskolarteko jaialdia ospatuko da.

Antolakuntzak eskerrak eman dizkie Txistor Eguna posible egin duten Castillo de Monjardin eta Vega del Castillo upategiei ardoa emateagatik, eta Cederna Garalurri, Sakanako Garapen Agentziari eta Aldabide elkarteari udal honekin elkarlanean aritzeagatik.

Txistor Eguna, egitaraua

Larunbata 7

- **19:00** Atzaparrock kontzertua.

Igandea 8

- **10:00** Arbizuko fanfarrea herrian barna.
- **10:30** Txistor Egunaren hasiera eta azokaren irekiera.
- **11:00** Nafarroako trikitilarien bilkura.
- **11:30** Pintxo lehiaketaren hasiera..
- **13:30** Pintxo lehiaketa, sari banaketa.
- **15:00** Azokaren itxiera.
- **17:00** II. Nafarroako Trikitixa Eskolen Jaialdia.



REBEKA MENDOZA

Sanmiguelak joan dira

Olaztiko San Miguelei Elikagaien Bankuko bozeramaile batek eman zien hasiera. Larunbateko herri bazkarian 250 lagun elkartu ziren, irabaziak Luisitoren alde izan ziren. Pilotari ohiak omendu zituzten arratsaldean. Artisauek lekukoa hartu zuen igandean. Artisauez aparte, Munduko Arrozak eta umeendako tailerrak eta hegazti harrapakarien ikuskizuna.



Ferriak eta langarra

Eguraldiak gehiegi ez bazuen lagundu ere, asteburuan ferriak ospatu ziren Etxarri Aranatzan. Munduko zapoak dastatzeko aukera izan zen larunbatean Sakana Harrera Haranak antolatuta. Igandean, langar-pean egin zen artisauek azoka eta herriko azokaren erakusketa. Sakanako artzainaren gazta 14. txapelketa Unanuko Balda-Artolarendako izan zen.



UTZITAKOIA

Festak akabo

Km bertikaleko antolatzaileek piztu zuten festa hasierako etxajua. Paella lehiaketa, Huntzaren dantzaldia, erraldoien konpartsa, auzateak... festa betea.

Txistorraren gorazarre eguna igandean Arbizun

Urriaren 8an, igandearekin, Arbizuko kaleetan berriz ere, TXISTOR EGUNA izango dugu. Gure ibarraren izena goreneko kalitatearekin lotuta dihoan produktu izarra dugu Sakanako txistorra, soka gorrixka eder eta goxo hau, oso estimatua da mundu zabalean.

Bertoko artisau eta produktu-enpresek, tradizioari jarraituz, txistorrak ekoizten jarraitzen dute, bezeroen fidelizazioa lortuz eta kalitate zigilua bermatuz. Zatoz eta goza ezazu!

Embudos artesanos
Flores S.L.
txistor ekologikoa
Nafarroako bertako txistorrak izen bat du
Utzubar industrialdea · Rte. - Faxa: 948 460 499 · ARBIZU

Arbizu
Embutidos y patés
Usadioaren zaporea
Reyno Gourmet
www.embutidosarbizu.es
948 460 628 · Utzubar industrialdea, E kalea 1-2 · Arbizu

TRADIZIOAREN ZAPOREA
— 1915 —

LAKET

NAFARROAKO

Txistorra

1. Saria
XVI. Santo Tomas Txapelketa
DONOSTIA

Finalista
XII. Txistorraren Nafar Txapelketa
IRUÑA

Laket Artesanos S. L.
Utzubar industrialdea C/ AP-10 · Arbizu
948 461 882 · direccion@laketartesanos.com
www.laketartesanos.com

txistor eguna '17
Urriaren 8an
Arbizu

| | |
|--|--|
| <p>7 LARUNBATA</p> <p>19:00 ATZAPARRIOK TALDEAREN EMANALDIA PLAZAN</p> | <p>18:30 PINTXO LEHIAKETAREN SANI BANAKETA</p> <p>15:00 MERKATUAREN ITXIERA</p> <p>17:00 NAFARROAKO TXISTOKA EGOKEN S. JAIALDIA</p> |
| <p>8 IGANDEA</p> <p>18:00 NAFARREAREN DIANA</p> <p>18:30 MERKATUAREN ITXIERA</p> <p>11:00 NAFARROAKO TXISTOLAREN BILKURA</p> <p>11:30 IX. PINTXO LEHIAKETAREN HASIERA</p> | <p>Arbizuko Ustela</p> <p><small>© 2017 Arbizu. Arbizuko Ustela eta Arbizuko Txistorra izenak markak dira. Arbizuko Ustela eta Arbizuko Txistorra izenak markak dira. Arbizuko Ustela eta Arbizuko Txistorra izenak markak dira.</small></p> |

Arbizuko Ustela





Olaztiko pilotari ohiek Sutegik eta Udalak antolatutako omenaldia bihotzez eskertu zuten. REBEKA MENDOZA

Txaloak, irrifarrak eta malkoren bat

PILOTA Esquisabel, Etxeandia, Goikoetxea, Lopez de Goikoetxea, Goikoetxea, Vergara, Zubelzu, Bados eta Oraa pilotari ohi olaztiarrek herritarren omenaldi beroa jaso zuten larunbatean Olaztiko pilotalekuan. Hunkituta, antolatzaileei eskerrak eman zizkieten

Rebeka Mendoza OLAZTI

Larunbatean herriko pilotari ohiak omendu zituzten Olaztin. Udaletxeak eta Sutegi taldeak antolatutako ekitaldira jende asko gerturatu zen. Hasieran, Sutegiko pilota eskolako pilotarien partidak jokatu ziren eta ondoren omenaldiaren txanda izan zen. Omendutakoak Javier Bados, Floren Esquisabel, Jose

Miguel Etxeandia, Felix Mari Goikoetxea, Patxi Goikoetxea, Jose Joaquin Lopez de Goikoetxea, Juan Oraa, Paco Vergara eta Alberto Zubelzu izan ziren. Guztiek, Javier Bados eta Juan Oraa izan ezik, omenaldian parte hartu zuten. Aurraskua amaituta, irrifar eta malkoen artean sariak jaso zituzten eta partida profesionalaren ohorez-

ko sakea Fermin Esquisabelek egin zuen.

Orduan, omendutakoekin hitz egiteko aukera izan genuen. Horrela, Alberto Zubelzuk eta Patxi Goikoetxeak erremontean, Jose Joaquin Lopez de Goikoetxeak eta Felix Mari Goikoetxeak zesta-puntan eta Paco Vergarak, Floren Esquisabelek eta Jose Miguel Etxeandiak esku-pilota-

ko modalitatetan profesional jokatu zutelaren izan genuen.

Banan-bana

Guztiek lehenbiziko pilotakadak Olaztiko frontoian eman zituzten, haurrak zirela. Gerora, haien debutak Iruñean (Zubelzu), Bergaran (Etxeandia), Hernanin (P. Goikoetxea), Sestaon (Esquisabel), Zaragozan (F.M. Goikoetxea), Madrilen (Vergara) eta Bartzelonan (Lopez de Goikoetxea) izan ziren.

Alberto Zubelzu Euskal Jai Galarreta taldearekin hasi zen jokatzeko eta 32 urterekin erremontean mundua utzi zuen. Egun, Sutegi Pilota Eskolan laguntzaile bezala aritzen da.

Patxi Goikoetxea hasieran esku-pilotan hasi zen eta 1968an, Madrilen, Gazte Txapelketaren irabazlea izan zen. Urte bat gerago, Hernanin debutatu zuen, erremonteko profesional gisa. Handik hamar urtera mundu hori utzi zuen. Pilotazale amorratua, Labriten ematen ditu larunbatak.

Paco Vergarak lau urte iraun zuen profesional. Madrilen eman zituen lau urte horiek, han debutatu zuen eta bertan amaitu zuen bere ibilbidea. Momentu hartan etorkizunik ez zion ikusten eta herrira bueltatzea eta tailer bat jartzea erabaki zuen.

Jose Miguel Etxeandia 4 urte jarraian izan zen Espainiako 23 urtez azpiko txapelketako irabazlea. Empresas Unidas-en hasi zuen bere ibilbidea profesional gisa, gerora Eskulari taldera pasatu zen eta 36 urterekin utzi zuen. Pilotari oso ezagunekin aritu zen; haren kontra Retegi II.ak debutatu zuen, esaterako.

Floren Esquisabel 1968an, Mexikon, txapeldun olinpikoa izan zen. Urte berean profesional

bilakatu zen, eta zoritxarrez, 25 urterekin, urte bat profesionalen eman eta gero, pilota utzi behar izan zuen, bizkar lesio bat zela medio. Kirola aldatu zuen eta 40 urte badaramatza txirringularitzaren munduan, egun Caja Rural taldearekin.

Jose Joaquin Lopez de Goikoetxeak Bartzelonan debutatu zuen, zesta-punta modalitatean. Hiri horretan lau urte eman zituen eta gerora Estatu Batuetara salto eman zuen; han 7 urte pasatu zituen. Gero, urte bat Donostian eta beste bat Mexikon pasa eta gero, 32 urterekin uztea erabaki zuen.

Felix Mari Goikoetxea zesta-puntan aritu zen baita ere. Zaragozan debutatu zuen eta handik Madrilerara joan zen. Bertan txapelketa baten saria Manolo Santana tenistaren eskue-tatik jaso zuen. Gerora, Estatu Batuetan 3 denboraldi eman zituen. Baina bere ibilbidea goiz amaitu zen, auto istripu bat tarteko. Hala ere, Iruñean zesta-puntako eskola bat sortu zuen eta Altsasuko Pilota Eskolan ibili da laguntzen.

Gaur egun, ez dago Olaztiko pilotaririk profesional mailan. Batzuk frontoiaren itxierari botatzen diote errua; lehen frontoia beti irekita zegoen eta herriko bizigunea zen. Orain, aldiz, bertara sartzeko giltza eskatu behar da. Bestalde, pilotari ohiek poztasunez hartu zuten omenaldia; baten bat asko emozionatu zen eta malkoetan amaitu zuen.

PILOTARI OHIEK UDALARI ETA ALBERTO LANDARI ESKERRAK EMAN ZIZKIOTEN, OMENALDIAGATIK

Joseba Ezkurdia eta Joanes Bakaikoa Lau t'erdian

PILOTA Larunbatean Mendizabal III.aren kontra jokatu du arbuzarrak eta Agirreren kontra etxarriarrak

Asteburuan hasiko da Lau t'erdia. 12 aurrelarik jokatu dute, Joseba Ezkurdia tartean. Arbuzarrak final zortzirenetan. Mendizabal III.a izango du aurkari, bihar, Labriten jokatu den partidaren (17:30, ETB1).

Ezkurdia bosgarrenez ariko da Lau T'erdian. Aurkezpenean azaldu zuenez, "sasoiko" dago. "Helburua lehen partida irabaztea da, ezin da haratago pentsatu. Partida zaila da, Mendizabali tanto egitea zaila delako.

Kontua ligaxkan sartzea da eta han, ikusi behar" adierazi zuen. Arbuzarrari partidak istearen azkeneko koska falta zaiola esaten da askotan. "Badakit hala dela; ni naiz hori konpondu nahi duen aurrenekoa, eta ikasi egin behar dut nola" gaineratu zuen.

Bakaikoa, Promoziokoan

Aldi berean, 2. Mailako Lau t'erdia jokatu da. Joanes Bakaikoa final laurdenetako partida jokatu du bihar Labriten, Agirreren kontra.



Astearrean aurkeztu zuten Lau t'erdiko txapelketa, Zarautzen. ASPE

Dantzaleku, BUTS-en Donostia-Bilbo etapa itxieran

MENDIA Igorretik Bilbora arteko azken tartea itxiko dute mendizale sakandarrek, etzi

Trail 52 Sport Mendi Kluba taldeak Basque Ultra Trail Series (BUTS) 2017 antolatu du, Hego Euskal Herriko lau hiriburuak mendirik mendi lotzen dituen mendi lasterketa erraldoia. Lau etapa dira guztira. Otsailaren 24tik 26ra jokatu zen lehendabizikoa, Bilbo eta Gasteiz artekoa, maiatzaren 5etik 7ra bigarrena, Gasteiz eta Iruñea artekoa, Laudatik Sakanara sartu eta Beriaindik eta Ollotik aurrera Iruñean despeditu zena; eta agorrilaren 4a eta 6a bitartean hirugarren etapa, Iruñean hasi eta Donostian despeditu zena, Arakildik eta Irurtzundik pasa zena. Asteburu honetan, urriaren 6tik 8ra jokatu da azken etapa, lauretatik gogorrena, Donostiatik Bilboraino (140 km eta 8.000 metroko desnibel positiboa).

Lau etapetatik hirutan

Kontua da 2. etapan antolatzaileak Dantzaleku Sakana klubeko mendi sekzioarekin harremanetan jarri zirela, antolakuntzan laguntza eskatzeko. Zehazki, Opakuatik Lizarragaraino joan behar ziren Dantzalekuoak, martxa ixten, balizak eta seinaleak kentzen, guztia txukun uzten eta korrikalariren bat atzean geratuz gero, haiek atendituz. Esperientzia bikaina izan zen eta 3. etapan ere Dantzalekuoen laguntza eskatu zuten BUTS-eko antolatzaileek, Iruñetik atera eta Irurtzun bitarteko itxiera lana egiteko. Eta asteburu honetarako atzera ere sakandarrangana jo dute laguntza eske. "Badirudi kontentu daudela gure lanarekin eta horretatik azken etapako azken eremua ixtea eskatu digute, Igorretik Bilbora. Dantzalekutik seikote bat joango gara. Atzera ere, sekulako esperientzia izango da; laguntza ematearekin kontentu gaude" azaldu digu Dantzaleku Sakanako Peio Bergarak.

Etzi, Euskal Herriko Erdigunera joateko deia

MENDIA Igandean izanen da Independentistak Sareak, Iratxo mendi taldeak eta Sakanako Mendizaleak taldeak antolatutako martxa, hiru zutabeetatik abiatuta. 11:30ean dago deituta ekitaldi nagusia

Aurreko urtean bezala, Iratxo mendi taldeak, Sakanako mendizaleak eta Independentistak sareak Euskal Herriko erdigunera mendi martxa antolatu dute. Ibilbideak lurraldetasuna aldarrikatzeko helburua du eta lurraldetasunaren eguna izan nahi du. Etzi izango da, igandean, urriaren 8an.

Hiru zutabek Beriaingo EH Erdigunea helburu

Hiru zutabe aterako dira Beriain tontorretik hurbil, Olibesarioko sarioan dagoen Euskal Herriko Erdigunerantz (1.232 m. Koordinadak: X:586.936 eta Y:4.748). Felix Isasi ingeniariak barizentroaren kontzeptuan oinarrituta kalkulatu zuen erdigunea eta monolito bat dago bertan. Lehen zutabea Unanuko herriko plazatik abiatuko da, 8:15ean, bigarren zutabea Senosiaingo goialdeko askatik, 8:45ean, eta, azkena, Irañetako bordatik, 9:30ean. Behin Erdigunean bil-



Aurreko urtean mendizaleek federazio bakarraren beharra aldarrikatu zuten. IRATXO

duta, ekitaldia egingen da bertan, 11:30ean. Ondoren, pintxo potea izango da Irañetako bordan, 13:30ean, eta bazkari herrikoia antolatu dute. 15:00etan (helduek 10 euro eta haurrek 5). Informazioarako, www.independentistak.eus web gunera jo daiteke.

Aurreko urteko EH Erdigunera ekitaldian, Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioak eta Euskal Mendizale Federazioak "mendizaleen kolektibo osoarendako proiektu komun bat gauzatzeko bide-orria zehazteko konpromisoa" hartu zuten.

Irurtzun, topaleku

MENDIA Igandean XV. Nafarroako Mendi Kluben eguna ospatu zen Irurtzunen, Iratxo elkarteak eta Boscos mendi taldeak antolatuta. Goizean bi ibilbideen artean aukeratzeko aukera izan zuten mendizaleek, 14 km-koa eta 9 km-koa. Ondoren, bazkaltzera bildu ziren eta, jai giroan, kanta eta dantza despeditu zuten eguna.



Martxa nordikoan. ARTXIBOA

Martxa nordikorako teknikak ezagutzeko

MARTXA NORDIKOA

Mank-ek ikastaroa antolatu du, urriaren 21ean, Altsasun

Jakina da martxa nordikoak onura nabarmenak dituela osasunerako: sistema linfatikoa aktibatzen du, gure defentsak indartzen ditu, gorputza tonifikatu, burua erlaxatu eta estres eta antsietateari aurre egiten dio. Horretaz gain, korrika egiten baino kaloria gehiago erretzen dira eta oinez ibiltzea baino osasuntsuagoa da, sistema kardiobaskularra eta birikieta-ko gaitasuna lantzen laguntzen du, hezurak sendotzen ditu artikulazioak mindu gabe eta orkatila, belaun eta bizkarrari ez die kalte egiten. Eta mugimenduen sinkronizazioak garuneko bi hemisferioen arteko konexio berriak sortzen laguntzen du.

Martxa nordikoak geroz eta jarraitzaile gehiago dituela jabetuta, martxa nordikoan edo bastoiekin ibiltzen ikasten laguntzeko martxa nordikorako teknika ikasteko ikastaroa antolatu du Mank-ek, urriaren 21ean, goizeko 10:00etatik 13:00ak arte, Altsasun. Monitorea Gorka Garcia Roman izanen da. Antolakuntzak jarriko ditu bastoioak.

Izena emateko

Urriaren 17ra bitartean, Mank-en (948 464 866, kirolak@sakana-mank.eus). Prezioa: 10 euro.

Onddo Lasterketarako prestatu gaitezten

ATLETISMOA Urriaren 14an jokatuko dira, Altsasuko ferietan, 10. Onddo Lasterketa eta 38. Eskolarteko Krosa. Izena ematea zabalik dago Dantzaleku Sakana taldeko www.dantzalekusakana.com webgunean

Dantzaleku Sakana Klubak, makina bat babeslerekin batera, X. Onddo Lasterketa eta 38. Eskolarteko Krosa antolatu ditu Altsasuko ferietarako, urriaren 14rako. Goizeko 11:00etatik aurrera kategoria txikiko probak jokatuko dira, 11:30ean Oinezko Onddo Martxa, eta 12:00etan Onddo Lasterketa (6,5 km). Helburua atletismoa sustatzea da, eta gure paraje zoragarrietatik barna korrika eginez gozatzea.

Bildutakoa, Josefina Arregi Klinikaren Lagunendako

Aurten ere oinezkoendako marxa antolatu dute. Izan ere, due-la urte pare bat Onddo Laster-



Lasterketan aritzera animatu dute.

ketarekin Josefina Arregi Klinikaren Lagunak taldea laguntzen hasi zen Dantzaleku kluba. Parte hartzeagatik 5 euroko laguntza eskatzen hasi ziren, jasotako guztia klinikaren lagunak taldeari emateko. Korrika egitera ausartzen ez zireneko, oinezko marxa antolatu zuten. Aurten ere hala izanen da eta bildutako guztia aipatu elkarteari emango zaio.

Izena emateko

Aurreko urtean 472 lagunek hartu zuten parte. "Ea aurten 500 garen!" adierazi dute. Izena ematea zabalik dago, www.dantzalekusakana.com web orrian.



Mikel Astiz, Doñanako desafioko txirindularitza sektorean. DESAFIO DOÑANA

Mikel Astiz bikain Doñana desafioan

TRIATLOIA la bost orduko lanean, 240 triatleten artean lhabarkoa 11.a sailkatu zen, bere mailan lehena

Asteburuan Desafio Doñana triatloia jokatu da Sanlucar de Barramedan (100 km bizikletan, Guadalquivir igerian gurutzatu - km 1- eta 30 km korrika). Eguzkipean eta sekulako beroari aurrer eginez, 240 triatletek lortu zuten proba despeditzea, Emilio

Martin txapelduna buru zela (4:30:22). Ihabarko Mikel Astiz triatletak lan bikaina egin zuen: sailkapen orokorrean 11.a sailkatu zen Saltoki Trikideak taldeko sakandarra (4:51:29) eta bere mailan, 25-29 urte arteko mailan, txapelduna izan zen.

AISIALDIKO BEGIRALEEN LAN-POLITSA

Gutxieneko baldintzak:

- ✓ Euskaraz jakitea, ahoz nahiz idatziz.
- ✓ C1 egiaztatu beharko da.
- ✓ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua edo horren baliokidea.

Kontuan izango da:

- Gidatzeko baimena eta autoa izatea.
- Aisialdiko begirale titulua.

Mank
s a k a n a

Harremanetan jartzeko modua: interesa dutenek beren curriculumak honako helbide honetara bidali beharko dute: euskara1@sakana-mank.eus



Beñat Katarain eta gainontzeko sarituak, Olatzagutia-Urbasa mendi lasterketako podiumean.

Beñat Katarainen asteburu borobila

MENDI LASTERKETAK Larunbatean Olatzagutia-Urbasa mendi lasterketa eta igandean Etxarriko Mendira Joan Etorria irabazi zituen lakuntzarrak. Olatziko proban 110 korrikalari lehiatu ziren eta Etxarrikoan 80 korrikalari

Asteburuan bi mendi lasterketa jokatu dira Sakanan eta biek protagonista bera izan dute: Beñat Katarain Razkin. Izan ere, Olaztin eta Etxarrin garaile suertatu da 28 urteko lakuntzarra.

Larunbatean jokatu zen XI. Olatzagutia Urbasa. Lainoa eta eta xirimiria lagun, 110 korrikalarik hartu zuten parte, 63 proba luzean (26,33 km, 1.838 m desnibel +) eta 47 proba laburrean (16 km, 1.122 m desnibel +), 24 sakandar guztira. Ontorraundira (1.157 m) jo zuten korrikalariak, Altsasuko portugain, Morterutxo, Zelai handi, Bargagain eta atzera ere Morterutxora heltzeko. Ibilbide motzekoek helmugara jo zuten eta nagusikoek Egiburu igo eta Ziordiko portutik Gainsolera iritsi ziren. Bertatik jaitsierari ekin zioten.

Proba laburra Olaztin geratzeko zorian egon zen, baina

Borja Gereñu segurarra izan zen lehena (1:35:44), Raul Audikana olaztiarraren aurretik (1:36:48). Iñaki Garmendia olaztiarrak osatu zuen podiuma (1:38:47). Emakumezkoetan, aldiz, Izaskun Beunza olaztiarrak ez zuen areriorik izan (1:57:26). 9 minutu pasa atera zizkion Nagore Arizagari (2:06:59).

Sei minutuko alde

Proba nagusian Beñat Katarain lakuntzarrak hasieratik hautsi zuen lasterketa. Bikain eutsi zuen eta bakarrik iritsi zen helmugara (2:22:33). Denboraldi

BERAZA HIRUGARRENA SARTU ZEN OLAZTIN ETA UNZURRUNZAGA LAUGARRENA

bikaina darama Zegaman bizi den lakuntzarrak eta Olatzikoarekin denboraldiko bere 30. lasterketa osatu zuenak. Sei minutu atera zizkion Aitor Arenazari (2:28:35). Hirugarrena Jose Luis Beraza uhartearra izan zen (2:33:04), probako lehen betaranoa. Laugarrena sailkatu zen Ander Unzurrunzaga etxarriarra (2:38:13) bigarren betaranoa izan zen. Emakumezkoetan, berriz, Maider Fraile gailendu zen (2:56:05), Izaskun Zubizarretaren aurretik (2:56:41). Arantza Larrañaga uhartearra izan zen lehen sakandarra, emakumezkoetan zortzigarrena (3:52:58).

Etxarrin 38 korrikalari sakandar Igandean, 42. Mendira Joan Etorrian (10 km eta 572 m desnibel +), Etxarriko plazatik atera eta Bargara igotzea zen erronka, Hartzabaleraino (1.065 m), eta

Sakandarrak XI. Olatzagutia Urbasan

Luzea (26 km)

| | |
|-------------------------------|---------|
| 1. Beñat Katarain (Lak): | 2:22:33 |
| 3. J.L. Beraza (Uhar): | 2:33:04 |
| 4. A. Unzurrunzaga (Etx): | 2:38:13 |
| 11. Iker Flores (Alts): | 2:53:26 |
| 25. Asier Leiza (Arb): | 3:12:05 |
| 44. Aritz Ganuza (Olaz): | 3:42:02 |
| 46. F.J. Rodriguez (Alts): | 3:43:48 |
| 48. Arantza Larrañaga (Uhar): | 3:52:58 |
| 49. Ainhoa Beraza (Irañ): | 3:52:59 |

Motza (16 km)

| | |
|------------------------------|---------|
| 1. Borja Gereñu: | 1:35:44 |
| 2. Raul Audikana (Olaz): | 1:36:48 |
| 3. Iñaki Garmendia (Olaz): | 1:38:47 |
| 4. Felix Benjumea (Alts): | 1:40:29 |
| 5. Gorka Acebes (Olaz): | 1:41:23 |
| 6. Jabi Gasanz (Alts): | 1:42:53 |
| 7. Eukeni Goikoetxea (Alts): | 1:43:05 |
| 9. Iban Sobredo (Alts): | 1:44:53 |
| 10. Javier Borrega (Alts): | 1:46:36 |
| 14. J. Bereziartu (Alts): | 1:53:40 |
| 17. Luis Areta (Lak): | 1:57:11 |
| 18. Aritz Pellejero (Lak): | 1:57:13 |
| 19. Izaskun Beunza (Olaz): | 1:57:26 |
| 22. Juan P. Ariz (Bak): | 2:03:43 |
| 30. Ander Orabengoa (Olaz): | 2:12:41 |
| 36. Ainhoa Markinez (Olaz): | 2:24:02 |

Sakandarrak Etxarriko Joan Etorrian

Luzea (26 km)

| | |
|------------------------------------|---------|
| 1. Beñat Katarain (Lak): | 46:48 |
| 3. Aritz Munarriz (Etx): | 49:31 |
| 10. Alatz Agirre (Arb): | 52:41 |
| 12. Ander Unzurrunzaga G. (Etx): | 53:00 |
| 13. Beñat Anda (Etx): | 53:18 |
| 14. Joxeja Maiza (Etx): | 53:28 |
| 16. Iñaki Álvaro (Alts): | 54:11 |
| 17. Juan Larrea (Alts): | 54:21 |
| 18. Ioseba Iza (Arb): | 54:38 |
| 21. David Mutiloa (Izur): | 55:21 |
| 22. Fran Araña (Arb): | 55:30 |
| 27. Ibon Ubeda (Etx): | 57:15 |
| 28. Izai Mauleon (Etx): | 57:16 |
| 31. Alberto Mtnz. De Lagran (Etx): | 58:37 |
| 32. Juan Mariñelarena (Etx): | 59:06 |
| 33. Carlos Mañeru (Etx): | 59:08 |
| 34. Unai Kintana (Bak): | 59:47 |
| 37. Iñaki Azkona (Izur): | 1:00:29 |
| 39. Bernar Garziandia (Etx): | 1:01:18 |
| 40. Gorka Arratibel (Etx): | 1:01:39 |
| 43. Aritz Jaka (Etx): | 1:02:38 |
| 47. Erkuden San Martin (Etx): | 1:03:45 |
| 48. Aitor Salinas (Etx): | 1:04:07 |
| 52. Patxi Urrestarazu (Etx): | 1:05:31 |
| 53. Aimar Araña (Etx): | 1:06:34 |
| 54. Kimetz Garde (Etx): | 1:06:34 |
| 55. Xabier Etxeberria (Etx): | 1:07:55 |
| 56. Guillermo Juango (Izur): | 1:08:46 |
| 57. Amaia Etxeberria (Izur): | 1:08:59 |
| 63. Manuel Larraza (Lizar): | 1:10:39 |
| 64. Jose Javier Goikoetxea (Etx): | 1:10:40 |
| 66. Maria Goikoetxea (Etx): | 1:11:28 |
| 67. Iban Verdugo (Etx): | 1:11:28 |
| 68. Fco. Jose Juango (Izur): | 1:13:49 |
| 70. Pirol Campos (Etx): | 1:18:03 |
| 71. Patxi Atxa (Etx): | 1:19:56 |
| 72. Edurne Beltza (Etx): | 1:22:51 |
| 73. Anaitz Igoa (Etx): | 1:22:52 |





Denetariko ibilgailu klasikoak bilduko dira bihar Bakaikun.

Bakaiku mota guztiko katxarroen topagune

AUTOMOBILISMOA Bakarrekoetxea elkarteak eta Kotxko Tabernak III. Katxarro Eguna antolatu dute biharko

Bakaikuko Bakarrekoetxea elkarteak kideak eta Kotxko Tabernakoak biharko antolatu duten III. Katxarro Egunerako azken ukituak prestatzen murgilduta dabiltza. Izan ere, arreko urteetako jarraipen bikainak atzera ere ibilgailu zaharren eta klasikoaren topaketa antolatzeraren eraman ditu.

Aurreko urtean jendetza hurbildu zen Bakaikura, bertan bildutako auto, traktore, kamioi, motor, bizikleta eta mota guztietako ibilgailu klasikoak ikusitera. 150 auto, 40 moto, 3 kamioi, 2 traktore eta 30 bizikleta kla-

siko jarri ziren ikusgai Bakaikun. Eta aurten topaketa horri eutsi nahi diote. Horrela, mota guztietako katxarroei hautsa kendu eta kalera ateratzeko deia egin dute antolatzaileek.

Goizeko 10:00etatik 13:00etara klasikoaren topaketa hartuko du Bakaikuko plazak. 11:30ean parte-hartzaileei auzatea eskainiko die Udalak, eta eguerdi aldera Sakanatik barna ibilbidea egingen dute guztiek, batera. Buelta egin eta gero, elkartean bazkaltzera bilduko dira guztiak. Informazioarako: 680 825 557.



GUAIXE

Aramendia, Sopela woman

TXIRRINDULARITZA Ugeraga Elkartek emakumezkoen UCI taldea izango du 10. denboraldian jarrian. Lointek taldearekin zuen babesletza bukatuta, hurrengo denboraldian Sopela Women's Team izena hartuko du taldeak. Francisco Pla izango da zuzendaria. Egun CAF Turnkey Engineering Team taldean dabilen Maialen Aramendia bertan ariko da.



Urriaren 14an motorren festa hartuko du Olaztik.

Urbasako Igoera: motor festako atzerakontua hasi da

AUTOMOBILISMOA Urriaren 14an jokatu da, eta pilotuek izena emateko gaur dute azken eguna

Urriaren 14an Urbasa motorzaileen bilgune bilakatuko da. Izan ere, Sakana Motorsport eskuderiak, Nafarroako Automobilismo Federazioarekin batera, XXXVII. Urbasa Igoera antolatu du egun horretarako. Lasterketa Nafarroako Mendi Txapelketarako eta Nafarroako Junior Mailako Mendi Txapelketarako baliagarria da.

Olaztitik Urbasara doan errepidea bezperan itxiko dute, urriaren 13an, ostiralarekin, gaueko hamarretan (22:00). Igoerari dagokionez, urriaren 14an, larunbatarekin, goizeko 8:00etatik

aurrera proban parte hartuko duten autoen egiaztapenak hasiko dira, Clinker jatetxe parean, 12:30ak arte. 13:30ean lehen entrenamendua abiatuko da eta ondoren, segidan, probako bi manga ofizialak jokatu dira. 20:00etan sari emate ekitaldia izanen da Clinker parean.

Izena emateko

Pilotuek gaur dute lasterketarako izena emateko azken eguna, www.fotomotor.es web orrian edo Nafarroako Automobilismo Federazioaren www.fenauto.com web gunearen bitartez.

Denboraldiaren oso balorazio positiboa egin du Rural Kutxak

TXIRRINDULARITZA Talde sakandarreko txirrindulariek 28 garaipen lortu dituzte 2017 denboraldian

Bukatu da afizionatuen mailako 2017 denboraldia, eta balorazioak egiteko unea da. Rural Kutxa-Seguros RGA talde sakandarrean "oso pozik" daudela azaldu du Ruben Martinezek, taldeko zuzendariak. Eta ez da gutxiagorako, 28 garaipen lortu baitituzte, kalitatezkoak. Tartean, Euskaldun Txapelketa irabazi du talde sakandarrak, Iker Azkaraterekin, Nafarroako Itzuliko lehen etapa irabazi zuen Oscar Pelegrik... Martinezek gaineratu duenez "Espainiako onenak izan gara, izan dugun erregu-

lartasunari esker. Denboraldi guztian barna garaipenak lortu ditugu, taldeko onenak ez zuden ere bai. Uste dut denboraldiko lehenak izan garela, nahiz eta Lizarte eta Euskadigure maila ia berean egon. Oso pozik nago taldearekin" gaineratu du zuzendariak. Hurrengo urteari begira, oso jubencil onak izango dituztela aipatu du.

Bestalde, igandean juniorrek eta 2. urteko kadeteek lasterketa izan zuten Atarrabaian. Ailetz Lasa (Quesos Albeniz) izan zen lehen sakandarra, 13. postuan.

KIROLDEGIA

Fibromialgia arintzeko eskaintza

Nafarroako Fibromialgia Elkar-teak, AFINAK, fibromialgia, Neke Kronikoaren Sindromea, Senti-beratasun Kimiko Anizkoitza eta antzeko sindrome eta gaixotasunak dituzten sakandarrendako jardura fisikoa eskainiko du, beste behin, Altsasun, Etxarri Aranatz eta Irurtzunen. Horretarako Sakanako Mankomunitatearen eta Altsasu, Etxarri Aranatz eta Irurtzungo Udalen laguntza izan du.

Helburua, minusbaliotasun fisikoa eta organikoa duten pertsonen osasuna hobetzeko jardura fisiko espezifiko eskaintzea da, pertsona hauek euren bizi kalitatean hobekuntza nabaritu dezaten.

Ikastaro hau Altsasun eta Irurtzunen asteartetan eta ostegunetan eskainiko da, urriaren 3tik ekainera bitartean. Irurtzunen Kultur Etxean izanen da, goizez, 10:40etik 12:10era. Altsasun, aldiz, Musika Eskolan, 16:00etatik 17:30era. Aldiz, Etxarri Aranatz astelehenean eta asteazkenean ariko dira, Osasun Etxean, 16:00etatik 17:30era.

Izena ematea zabalik dago, Sakanako Mankomunitatean (948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.eus). AFINAKo bazkideek 11 euro ordaindu beharko dituzte hilero, eta bazkide ez direnek, aldiz, 14 euro hilero.

AIZKORA Resano hirugarrena eta Beltza laugarrena

Larunbatean, Igantzin, Nafarroako II. Mailako Aizkora Txapelketa jokatu zen. Bost aizkolarari lehiatu ziren, tartean bi sakandar, Iban Resano dorrobarra eta Goizeder Beltza etxarriarra.

Bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat erdibitu behar izan zituzten eta Oier Kañameres (17:36) eta Eneko Saralegi (17:50) izan ziren azkarrenak eta beraiek lortu zuten hurrengo urtean lehen mailan aritzeko txartela.

Iban Resano hirugarrena sailkatu zen (18:05), Goizeder Beltza laugarrena (19:02) eta Jon Telletxea bosgarrena (19:13). Hortaz, II. mailan jarraituko dute.



Erregional mailako Altsasu futbol taldea, 2017/2018 denboraldikoa. SDA

Altsasu futbol taldea: aurten gora begira

FUTBOLA Aurreko bizpahiru urtetan erregional mailako taldea egonkortzea izan dute helburu Sociedad Deportiva Alsasuan (SDA) eta aurten saltoa ematea eta igoera faserako sailkatzea da klubaren helburua

Erregional mailan 3 jardunaldi jokatu dira. Lehendabizikoa atzeratu egin zuen bertan lehiazten ari den Altsasuk, festak zirelako, eta atzeratutako partida ostegunean jokatuko dute, urriaren 12an, 16:00etan, Dantzalekun, San Ignazioen kontra. Hala ere, Lagunak B eta Beti Kozkorri irabazita, erregionaleko liderra da egun Altsasu.

Jokalariak ia berberak dira, baina ingurunea guztiz aldatu da. SDAko futbol koordinatzaile Gorka Paskuak postua utzi behar izan zuen, lan kontuengatik, eta SDAn futbol-basean entrenatzen aritu den Alfonso Castellanos hartu du haren lekua. "Gorkak sekulako lana egin zuen. Ordura arte futbol talde bakoitza aparte ibiltzen zen eta Gorkak guztia bateratu zuen eta klubean futbol egitura bikaina sortu zuen: talde guztiak koordinatu zituen, futbol egitura egonkortu zuen, taldeen harreko harremanak sustatu... futbol klub bezala handitu egin zen

Altsasu eta oraindik handitzen jarraitzen du. Hasieran errespetu handiz hartu nuen bere tokia, Iokin Lobok proposatuta, baina SDAko juntaren eta futbolarien babesa dut eta eromena izan arren, aurrera egiten ari gara" azaldu digu SDAko futbol koordinatzaile berriak.

Igoeragatik borrokatu

Azken bi urtetan erregional talde sendoa osatzeko lanetan aritu da Altsasu. Ez zegoen beste helbururik: taldea egitea, sortzea. Eta lan horrek bere fruitua izan du. "Taldea sendotu da. Talde gaztea da, baina erregionalean bizpahiru urteko esperientzia dute. Talde ona da eta aldageletako giroa bikaina da. Taldean ez dago aparteko aldaketarik, azken bi urtetako egitura bera da. Bi baja izan ditugu, Darling G. Quezada -Etxarrira joan da- eta Julen Goikoetxearena, ikasketa eta lan kontuengatik. Jubeniletatik Jon Mendia eta Asier Bujanda igo dira eta Lagunen

zegoen Joseba Montoya eta Getxon zebilen Imanol Lobo bere harrobira, Altsasura itzuli dira" gaineratu du Castellanos. Horrela, aurten beste helburu batzuk planteatzeko tartea iritsi da. "Goian egon nahi dugu, preferente mailako igoera faserako sailkatzeko eta igoera fase horretan, ahal bada, preferentera igotzeko. Taldea egituratzen aritu gara azken urteetan eta saltoa emateko tartea iritsi da" azpimarratu du Castellanos.

Javi Riezu eta Francisco Gomezek gidatuko dute taldea. "Pozik eta ilusionatuta dago Riezu. Talde ona dugula jakitun, kontziente da aurten saltoa eman behar dugula" nabarmendu du Castellanos. Lagunak, Pam-

ALTSASUK 14 FUTBOL TALDE DITU GUZTIRA: 300 FUTBOLARI ETA 22 ENTRENATZAILE INGURU

Altsasu erregionala

Atezainak: Ekai Urkijo eta Iñaki Grajeras

Defentsak: Mikel Cordero, Yerai P. de Villarreal, Gorka Martinez, Jon Artigas, Aitor Lara eta Kenneth Paulette

Erdilariak: Iokin Lobo, Javi Guisado, Xabier Mazkianan, Xabier Ormazabal, Esteban Letona, Joseba Montoya eta Jon Mendia

Hegalak: Imanol Martinez, Nabil Essobai eta Asier Bujanda

Aurrelariak: Raul Claver, Eneko Garasa, Patxi Letona, Joseba Lizarraga eta Imanol Lobo

Entrenatzaileak: Javier Riezu Gonzalez eta Francisco Gomez Rovira

plona B... taldeak dira, bere ustez, erregionaleko onenak, "baina gure burua eurekin lehian ikusten dugu, maila berean" gaineratu du.

300 futbolari eta 22 entrenatzaile inguru

Castellanos azaldu digunez, 14 futbol talde ditu Altsasuk aurten: erregionala, jubenila, kadeteen mailako bi talde, haurren mailako hiru, kimuen mailako bi, benjaminen mailako bi eta aurrebenjaminen talde bat. Eta emakumezkoetan, bi talde daude: erregional mailakoa eta Futbol 8 mailakoa. Hortaz, harrobi arazorik ez dago Altsasan. "Gutxi gora behera 300 futbolari eta 22 entrenatzaile ibiliko gara lanean. Emakumezkoen futboleko, Gorka Paskuak sortutako bi taldeei jarraipena eman nahi diegu" azaldu digu futbol koordinatzaileak.

SDAko zuzendaritzan aldaketarik ez

SDA taldeko juntan talde berberak jarraitzen du lanean. Ione Borrega da presidentea, Carlos Villalobos presidenteordea, Maru Lasa diruzaina, Mañu Navarro idazkaria, eta Jesus Sayas, Martin Somocurcio, Felix Mazkianan eta Iñaki Etxaiz bokalak. Txirrindularitza sekzioaren ardura Felix Mazkiananek du, pilotarena Mañu Navarrok eta futbol koordinatzailea Alfonso Castellanos da.

PREFERENTE MAILA

| EMAITZAK | |
|-----------------------------|-----|
| Lagun Artea - Urrozterra | 2-0 |
| Etxarri Aranatz - Doneztebe | 0-2 |

| SAILKAPENA | |
|---------------------|---|
| 1. Arrotxapea | 7 |
| 8. Lagun Artea | 4 |
| 16. Etxarri Aranatz | 0 |

| PARTIDUAK | |
|-------------|-------------------------------------|
| LARUNBATEAN | |
| 18:00 | Doneztebe - Lagun <i>Donezteben</i> |
| 16:00 | Lagunak - Etxarri <i>Barañainen</i> |

Lagunek ongi eutsi zion Urrozterrari; Etxarri hobe ibili zen, baina Doneztebek irabazi

ERREGIONAL MAILA

| EMAITZAK | |
|-----------------------|-----|
| Beti Kozkor - Altsasu | 1-2 |

| SAILKAPENA | |
|------------|---|
| 1. Altsasu | 6 |

| PARTIDUAK | |
|-----------------------|--|
| OSTEGUNEAN, URRIAK 12 | |
| 16:00 | Altsasu - San Ignazio <i>Dantzalekun</i> |

Asteburu honetan atsedena du Altsasuk baina ostegunean, atzeratutako partida.

ELOMENDI TXAPELKETA

| EMAITZAK | |
|----------------|-----|
| Apolo - Zaldúa | 1-3 |

| SAILKAPENA | |
|------------|---|
| 1. Zaldúa | 6 |
| 2. Unziti | 6 |

| PARTIDUAK | |
|-------------|-------------------------------|
| LARUNBATEAN | |
| 17:00 | Eneriz - Zaldúa <i>Unzuen</i> |

ARETO FUTBOLA Osasuna Magna hirugarrena; etzi Zaragoza aurkari

Osasuna Magnak bina berdindu zuen Movistar Interrekin, Anaitasunan bildutako 3.000 zaleren aurrean primerako ikuskizuna eskainita. Victorrek Osasuna Magna aurreratu zuen, Interrek berdindu zuen baina Roberto Martilek atzera ere Imanol Arregiren taldea aurreratu zuen. Partida bukatzeaz zegoela, Inter Movistarrek berdindu egin zuen. "Partida oso ona egin dugu, Inter bezalako talde handi baten kontra" azaldu zuen Eserverri kapitainak. Sailkapenean Baratzelona da liderra (9 puntu) eta Osasuna Magna hirugarrena (7 puntu). Etzi, igandean, talde berdeak Rios Renovables Zaragoza izango du aurkari, 12:00etan.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI. gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 6

ALTSASU Pentsio duina! Nafarroako Pentsionistak Martxan elkarrekin kontzentrazioa deitu du.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.
19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.
20:00etan, udaletxe parean.

IRURTZUN Cuaderno blanco antzezlanaren jokatu du Hika teatrotik.
21:00etan, kultur etxean.

ALTSASU La niebla y la doncella filmaren emanaldia.
22:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Amico antzezlanaren eskainiko du Bubamara dance theater.
22:30etan, gaztetxean.

LARUNBATA 7

ALTSASU Altsasutik Muskizera 90 km-ko joan-etorria.
09:30etan, Baratzeko bide plazako lokomotoratik.

ARBIZU Atzaparroak taldearen kontzertua.
19:00etan, plazan.

ALTSASU Intxostiapunta gazte gunean irekitze festa.
17:30etik 01:00etara.

UNANU Malastrazas taldearen

kontzertua.
19:00etan, plazan.

ALTSASU Último tren a Treblinka antzezlanaren.
19:30etan, lortia kultur gunean.

IHABAR Zinema Ihabar Paradiso antzezlanaren jokatu du Ihabarko antzerki taldeak.
21:00etan, plazan.

UNANU Embajada, Josu Jon Imas eta Skabidean taldeen kontzertua.
24:00etan, frontoian.

IGANDEA 8

UNANU ETA IRAÑETA Euskal Herriko erdigunera martxa.
08:15etan Unanuko plazatik eta 09:30etan Irañetako Basokoetxea bordatik.

IRURTZUN Latasa, Eraso, Zarrantz, Aginaga, Aizkorbe eta Irurtzun lotuko dituen mendi ibilaldia Iturraskarri proiektua ezagutzeko.
09:00etan, plazatik.

ALTSASU Bernedotik Lañoiko lezera 39,7 km-ko joan-etorria, Barranka txirrindulari klubeko mendi-bizikleta taldeak.
07:15etan klubeko bajetatik.

ETXARRI ARANATZ Ziza eta landareen erakusketa. Hartzabal elkarrekin eta Mikologia taldea.
Goiz eta arratsaldean, plazan.

ARBIZU II. Nafarroako Trikitixa Eskolen Jaialdia.
17:00etan, plazan.

ALTSASU Cars 3 filmaren emanaldia.
19:30etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU La niebla y la doncella filmaren emanaldia.
19:30etan, lortia kultur gunean.



ALTSASUKO UDAL GAZTERI SAILA

ALTSASU

Fokua jarrita
Altsasuko Udalaren Gazteria Zerbitzuak Intxostiapunta gazte gunean antolatutako argazki ikastaroko lanak. Lastailaren 8ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, lortia kultur gunean..

ALTSASU. Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.
20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 9

ALTSASU Mikologia, lehen urratsak hitzaldia emanen du Begoña Ojerrek.
19:30etan, lortia kultur gunean.

ASTEARTEA 10

ALTSASU Antzina zer pentsatzen zuten zizek buruz? Hitzaldia emanen du Jose M^a Ausinek.
19:30etan, lortia kultur gunean.

ASTEAZKENA 11

ALTSASU Hiriguneetako zizak hitzaldia emanen du Roberto Fernandez Sasiak.
19:30etan, lortia kultur gunean.

OSTEGUNA 12

SAKANA Belate eta Beruete arteko mendi ibilaldia. Sakanako Mendizaleak taldea.
07:00etan, Irurtzundik.

ALTSASU Detroit filmaren emanaldia.
19:00etan, lortia kultur gunean.

ZORION AGURRAK



Izaro
ZORIONAK, potxola! 8 urte!! Zeinen handia, Izaro!!! Muxu asko familiaren partez.



Lorena
ZORIONAK, politta! Oso egun vederra pasa dezazula eta muxu asko etxekoan partez.



Oihan Gastaminza Betelu
6 urte!!! Zorionak gure Ninja ausartenari!!! Muxu asko Maddi eta etxeko guztion partez!!



Joxe Migel
Ongi etorri, Joxe Migel!! Besarkada handi bat. Zorionak familiari ere! Materan etxekuek.

Zorionak zure urtebetetzean ... **ta urte askotarako**

Argazkiak emateko lekuak:
Altsasu: Foru plaza 23-1 - zorion@guaixe.eus - Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daitezke.
E556 9035 0018 47 01 81012564



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazzen ibiltura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com - www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU • Tel./Fax: 948 468 360 • Telefono mugikarra: 690 641 860



IRAGARKI SAILKATUAK

LANA

LAN-ESKAINNTZA

Esperientziadun txofer bat behar da kamioi plumentzat. Sakanan. Tel 696 999 128. E-mail: asialda@gmail.com

HIGIEZINAK

LOKALAK /
ESKUALDAKETA

**KUME zentroa fisioterapia-
piako bi kontsulta eskualdatzen da.** Bi kontsulta eta erabilera antzeko gela bat. Sakanan. Tel 627 650 916.

SALDU

IBILGAILUAK

Salgai Citroen Xara VTS 2.0 HDI, 110 zaldi, diesel, 3 ate, 2003. urtekoa, oso ongi zainduta. Tel 646 76 23 83.

IRAKASKUNTZA

KLASEAK EMAN

Matematika eta fisika klase partikularrak ematen ditut. Tel 650 296 449.

OHARRAK

Otaiko ermitaren alde. Eraikina konpontzeko diru bilketa egiten ari dira. Ekarpenak parrokiaren edo herriko banku eta kutxetan zabalduko kontuetan sartu daitezke.

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela

Enplegarritasuna hobetzeko biterkeritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresariaren Elkartean langabeei eta lan bila dabilzanendako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

3MBk kontu korrontea zabaldu du Rural kutxan eta jendeak han egin ditzaiteke ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Euskonews ekonomiko-ki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza, euskonews@euskonews.com, 943 32 22 94

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabaldu eta finantzatzeko: http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cedema-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardueraren azterketak. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cedema.es edo sakana.admon@cedema.es

GoiEner Iruñean. Landarek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzeko, zalantzak argitzeko, ekarpenak egiteko...

Nicoleren aldeko diru-bilketa. Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerrian operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korronte honetan sartu dezake dirua: ES33 2100 5365 2301 0002 9770.

Volkswageneko langileendako deia. Iruñeko lantegiak zure elkartzan proiektua deialdia bigarren urteaz aurkeztu du. Bocalan Biak Bat fundazioak "Lau zango milaka irri" programa aurkeztu du laguntza deialdi horretara. Proiektua aurkeztu duten Sakanako elkarte

bakarra dira. Fundaziotik Volkswagen-eko langileei 24 proiektuaren aldeko botoa ematera animatu dituzte.

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2100 2173 87 0200346965

Euskaldun bat euro bat. Nafarroako erresumakoa izan zen Baigorriko Ebauxia gaztelua euskaldunen zat erreskuratu nahi da. Nafartarren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindik harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa www.euskaldunbateurobat.com

OPATUTAKOAK /
GALDUTAKOAK

GALDUTAKOAK

Urrezko eta zilarrezko kate bat galdu dut Altsasun. Kristalak dauzka. Mesedez, opatu due-nak hots egin dezala 651 811 230 telefonora.

Altsasuko Udaltzaingoak Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Eurretakoak eta mikilak: 19. Belatitakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

www.iragarkilaburrak.com

JAIOTZAK

- **Mael San Millan Rios**, irailaren 25ean Altsasun
- **Iraide Igoa Flores**, irailaren 26an Etxarri Aranatzan
- **Ari Burgos Altuna**, irailaren 29an Iruztunen
- **Ireber Flores Ramos**, irailaren 29an Arbizun

HERIOTZAK

- **Francisca Bakaikoa Senar**, irailaren 22an Lizarragan
- **Emiliana Pineda Mateos**, irailaren 27an Altsasun
- **Apolonio Martinez Garcia**, irailaren 28an Altsasun
- **Manuel Orikain Zia**, irailaren 28an Iturmendin

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA..



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75


edo eskelak@guaixe.eus

► Eskelak tarifikak: 50,82 € / 96,80 € / 130,68 €, prezio hauek BEZa barne dute. ► Bazkideek %10eko deskontua dute. ► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.

BETI IZANGO ZAITUZTEGU GURE BIHOTZETAN


EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 6




Azpimarragarriena tenperatura maximoen jaitziera izango da, 20 °C-ren azpitik geratuko dira. Baliteke euri pixkat egitea..

Larunbata, 7




Larunbatean giro egonkorra eta eguzkitsua, udazken sasoiko tenperaturekin. Egunsentian lainoa sortuko da.

Igandea, 8



Larunbatean bezala tenperatura zertxobait igokoa da. Zeru garbia eta lainoa egunsentian ere.

Astelehena, 9



Zeruan hodeiak agertuko dira baina ez du euririk egingo. Tenperaturak gora egingo du baina ez asko.

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKIAK@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

• Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen

gorabeheren erantzukizunik. ORDAINTEZKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta Guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Aste batez 3 euro, bi astez 6 euro eta hiru astez 8 euro (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ora arte.

40 tanatorios
IRACHE
aniversario
Tanatorioak: Altsasu – Iruztun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70
@Grupolrache
Grupolrache
www.tanatoriosirache.es

Arbizu Nafarroako Trikitixa Eskolen Jaialdiaren egoitza

Igandean ospatuko da jaialdiaren bigarren edizioa, 17:00etan, Arbizuko plazan, Txistor eguna ixteko.

ARBIZU

Joan zen urtean bezala, Arbizuko txistorra egunaren egitarauaren barruan Nafarroako Trikitixa Eskolen Jaialdia izanen da aurten ere. Eskoletako kideak elkar ezagutu eta harremana

bulkatzeko asmoz antolatu da jaialdia, bigarren edizioa duena. Zizurko, Lekunberriko, Barañaingo, Lesakako eta Berriozarko trikitixa eskoletako ikasleak ariko dira igandean. Sakanako trikitilariak Arbizuko eta Ola-

tzagutiko eskoletakoek ordezkatu dituzte.

Eskola bakoitzeko ordezkari-tza 10 kidez osatuta izanen da, helduagoak diren taldea izan ezik, haiek 12 izanen baitira. Bakoitzak hiruna pieza joko ditu eta haietako bat kantatua izanen da. Eta oholtzatik heldu diren aireak dantzatu nahi dituenak aukera ederra izanen du.

600 ikasle dira Nafarroako Trikitixa Elkarteko kide diren 50 bat eskoletan ari diren ikasleak, gutxi gorabehera.



Joan den urteko jaialdian aritutako trikitilarietako batzuk.

Bi alabengan amak utzitako itzala agertokian

Irurtzungo antzerki zikloa zabaltzeko *Cuaderno blanco* antzezlanak jokatu du Hika teatrok gaur, 21:00etan, Irurtzungo kultur etxean. Etxeko andre gogor eta zirikatzailea, tradizioaren defendatzaile itsuak eta elizkoi amorratua. Bizitza eman eta bizitza bizitzen uzten ez zuen ama agintaria. Hil eta 20 urteren buruan alabak elkartzen dira.



Itziar Ituño eta Miren Gojenola kartelean.

Gerraren ginetik laguntasunaren gorazarrea

Altsasuko gaztetxearen urteurrenaren barruan *Amico* antzezlanak eskainiko du Bubamara dance theaterrek, gaur, 22:30ean, Txori Garcia Uriz eta Ion Barbarin Lisarri euren erara dotoreak diren bi lagunena egingen dute. Bizitzak indarrez banatu ditu. Gerra zibila bete-betean dela topo egiten dute. Topaketak une komikoak eta samurrak ditu.



Ion Barbarin eta Txori Garcia Uriz. SARETIK

Umezurtzen eta Kòrczaken bizipenen lekuko

Último tren a Treblinka antzezlanak taularatuko du Vaiven producciones-ek bihar, 19:30ean, Altsasuko Iortia kultur gunean. 1942an Varsovian 200 haur judutarren bizilekua zen umezurtegia eta Janusz Kòrczak mediku eta pedagogoak, hango buru zelarik, haur-errepublika bat sortu zuen bere laguntzaile Stefania Wilzynskarekin batera.



Antzezlaren momentu bat. SARETIK



BAZTERRETIK


KATRIN GINEA

Irudi bat: Artea edo/eta Mezua

Asteburu honetan Getxophoto Nazioarteko Irudi Jaialdia despeditu da, eta 33 egunez 11 erakusketa ezberdin ikusteko aukera egon da. Irailaren 23an Arantza Floresekin batera Getxoko hainbat espaziotan aurkitzen ziren irudi erakusketa andanak ikusi eta bizi ahal izan genituen.

Eta zergatik dut gogoko Getxophoto jaialdia... Ba berezitasun ugari dituelako. Getxophoto ez da ohiturik gauden erakusketa "tipiko" horietako bat. Irudiak ez ditugu sala batean kokaturik ikusiko, edo ez gara ordutegi batera mugaturik egongo, adibidez. Espazioa. Getxophotoko erakusketa gehienak Algortako kaleetan daude kokaturik, edifizioen paretetan, Punta Begoñan... argazkiek bat egiten dute herriko bizimoduarekin.

Beraz, Getxophotoko erakusketa gehienak edozein momentutan bisitatu daitezke, modu librean eta dohainik. Nahiz eta bisita gidatu batzuetaz gozatzeko aukera izan. Merkatuan kokaturik dagoen Henk Wildschut-en erakusketa adibidez, gaur egungo elikadura formaren inguruko gaiarekin dago lotua, eta animalien argazkiak ikusten ari zaren bitartean Amsterdameko oilo fabrikara garraiatu zaitezke bertako usainak hartara laguntzen duelako. Tematika. Urtero egunerokotasunean dauden



gaien inguruko erakusketak aukeratzen dituzte. Gai sozialak, denok ukitzen gaituzten gaiak, hala nola, pobrezia, gerra, gerra ondoren ahazturik dauden herrialdeak, ekonomia, ingurumena... Aurten "Trantsizioak" gaia aukeratu dute.

Mundu eta gizarte tradizioaletik globalizaturako trantsizioa eta honen ondorioak. Begirada. Azkenik, eta niretzat garrantzitsuena, Getxophoton parte hartzen duten argazkilari asko ofizioz ez dira argazkilariak, argazkilaritza hobby bezala dute, baina beraien eguneroko bizimoduagatik, edo egunero inguruan ikusi behar izaten dutenagatik mezulari bihurtzen dira. Horregatik, niretzat argazkilari on bat izateko ez da kamerarik hoberena behar, edo ikasketa handirik behar, nahiz eta haiek kalitatezko irudiak ateratzeko oso baliogarriak izan, baizik eta objektibo baten atzean jarri eta errealtate bat kontatzeko kapazitatea izatea da niretzat argazkilari izatea. Getxophoton argazki politik

badaude, bai noski, gainera gehienetan, argazki hauek dira irudia deskribatzen hasten zarenean gai aldetik errealtate gordin bat erakusten dutenak. Baina Getxophoton ere badaude argazki ez hain artistikoak direnak, eta egileak bere, edo bere inguruko errealtatea erakusteko ezinbestekoak diren irudiak aukeratu dituenak. Datorren urteraino ez dugu Getxophotoz gozatzeko aukerarik izango, baina urriaren 20tik azaroaren 19ra Gasteizko Montehermoso kulturgunera gerturatzeke gonbitea egiten dizuet.

Bertan World Press Photo, prentsa argazkilaritzako sari prestigiotsueneko argazkiez gozatzeko aukera izango duzue eta. Beraz, gaur egun denok dugu gure sakelako mobilarekin argazkiak egiteko aukera, eta inguruan zirika egiten dizun guzti hori imajinetan irudikatzea animatzen dut jende guztia, agian egunen batean zuen izena eta irudiak Getxophoton ikusteko aukera izango duzue eta.

Ihabarko antzezlana berriro karteleran dago

Agorrilan euriagatik bertan behera gelditu zen emanaldia emanen dute bihar, 21:00etan, Ihabarren

IHABAR

Ihabarko antzerki taldeak *Zinema Ihabar Paradiso* antzezlana berriro emanen du bihar. Euren hamargarren muntaia agorrileko azken asteburuan bitan eskaintzekoak ziren. Bigarren

emanaldiaren erdian euriagatik bertan behera gelditu zen. Eta jende ugari obra ikusteko gogoz gelditu zenez, 16 aktoreek eta Jon Barbarin Lisarri zuzendariak berriro ematea erabaki dute.

Antzezlana horretan ihabardarrek hainbat esketxen bidez zinemaren historia erreparatzen dute. Horretarako Giuseppe Tornatorerengana jo dute, haren *Cinema Paradiso* filmera hain zuzen ere. Pelikula hartan bezala proiektioaz arduratuko den gizon bat eta hura laguntzen duen haur bat daude antzezlanean. Baina proiektorea matxuratu eta haurrak hura konpondu ondoren filma beharrean hainbat filmetako zatiak ikusgai izanen dira.



Antzele ihabardarrak obra jokatzen. UTZITAKOIA

Artiedarendako XXVI. Haurrendako Antzerki Testuen Lehiaketa

Iruñeko Udalak eta Nafarroako Antzerki Eskolak antolatutako XXVI. Haurrendako Antzerki Testuen Lehiaketako euskarazko lehiaketa Mainer Galarzak eta Xabier Artiedak partekatu dute saria. Artieda etxarriarrak *Maximiliano, ipuin kontalaria* lana aurkeztu zuen lehiaketara.

Etxarriarrak ipuinek duten botere eraldatzailea lantzen du

bere antzerki testuan. Neska-mutiko talde bat ipuin kontalaria baten laguntzaz euren artean sortzen diren desakordioak eta lehiak lantzen ari da. Eta lan horretan harremanak fantasiaz bidez eraldatu daitezkeela planteatzen da. Epaimahaiak esan duenez, Artiedaren testua antzeztua izateko baldintza onak ditu. Urtero saritutako obra taularatu egiten du Nafarroako Antzerki Eskolak, baina aurten bi lan saritu dituztenez, ikusteko dago zer gertatuko den.

Badosen azken lana Bilboko galeria batean erakusgai

Anjel Bados eskultore olaztiarrrak Bilboko Carreras Mugika galerian erakusketa ikusgai du. *Para ambos lados de la frontera* izenburua du erakusketak, pasaden asteazkenean mustu eta abenduaren 12ra arte ikusgai izanen dena. Eskulturak sortzeko oihala, egurra, harria, kartoia, plastikoa, kristala, metala eta inprimatutako hainbat irudi

erabili ditu. Materialen eta formen arteko jokoan sortutako obrak dira, formatu ertain eta txikikoak. Gehienak galeriako espazio zabalean, lurrean jarri ditu Badosek, eta gutxi batzuk paretan. Bakarka edo multzokatuta, elementu desberdinen elkarrizketaren bidez espazioa okupatu, eraldatu edo eraikitzen dituzten egiturak sortu ditu.

Badosek Arte Ederrak ikasi zituen San Fernando Errege Akademitan, eta eskultura espezialitatean lizentziatu zen 1973an.

Sakanako bertso eskolak Bertsostruk ekimenean ariko da

Bertsostruk, helduen bertso eskolen arteko desafio da eta aurtentzen hirugarren edizioa du. Parte-hartzaileek Seguran ospatu zen Bertso Eskolen Eguna baliatu zuten ekimena aurkezteko, larunbatean 21 taldek eman dute izena, Sakanako bertso eskola tartean.

Zortzi multzo egin dituzte eta sakandarrak Azkoitiko Ernia-

rraitz bertso eskolarekin partekatu dute. Bertso eskola bakoitzak bestea etxean hartuko du. Elkarrekin zehaztuko dute saioaren hitzordua eta formatua. Saioak udaberria bitartean jokatuko dira. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak dioenez Bertsostruk helburua da bertso eskolatan dauden helduen arteko harremanak sustatzea. Eta horrekin batera, baita bertso eskolen artekoa ere. Sakanako bertso eskolak orain arteko edizioetan parte hartu du.

Lau sakandar Bertsostruk sariketan ariko dira

Bertsolari gazteak trebatu, jendaurrean kantatu eta Iruñerriko publikoak bertsozaletzeko asmoa du Bertsostruk-Eugenio Arraiza sariketarako. Zozketa bidez erabaki dira bikoteak: etxarriarrak elkarrekin ariko dira, altsasuarrak beste batzuekin.

ETXARRI ARANATZ / ALTSASU

Nafarroako Bertsozale Elkarteak, Iruñeko Udala eta Euskokultur Fundazioaren laguntzarekin, Nafarroako bertsolari gazteei eskainitako Bertsostruk-Eugenio Arraiza Sariketa antolatu du. Aurreneko edizio horretan 16 eta 30 urte bitarteko 18 bertsolari gazteak parte hartuko dute. Haietako lau sakandarrak dira: Saats Karasatorre eta Unai Artieda etxarriarrak eta Ekain Alegre eta Idoia Granizo altsasuarrak.

Bikoteka ariko dira bertsolariak, zozketak erabakitako moduan. Etxarriarrak elkarrekin ariko dira, Alegre Joanes Ilarregirekin batera ariko da eta Granizo, berriz, Mikel Lasarterekin. Hiru kanporaketa jokatuko dira eta bakoitzean hiruna bikote ariko dira bertsoan. Kanporaketa bakoitzeko irabazlea finalerako sailkatuko da.

Nafarroako eskualde eta bertso eskola desberdinetako kideak aritu dira saioetarako gaiak prestatzen. Epaitzearen ardura, berriz, publikoarena izanen da. Horretarako, ikusleen artean epaitze orriak banatuko dira.

Lehiaketa

Ostegunean hasi zen Bertsostruk-Eugenio Arraiza txapelketa.



Ekain Alegre eta Idoia Granizo. NAFARROAKO BERTSOZALE ELK.

Sakandarrak bigarren saioan sartuko dira lehiatzera. Joanes Ilarregi-Ekain Alegre, Josu Sanjurjo-Iñigo Gorostazu eta Mikel Lasarte-Idoia Granizo bikoteak ariko dira Iruñeko herriko tabernan, asteazkenean, 19:30ean. Azken kanporaketa lastailaren 20an, ostiralean, 20:30ean, Barañaingo gaztetxean jokatuko da. Amaia Elizagoien-Xabat Ilarregi, Saioa Alkaiza-Aitor Irarretza eta Saats Karasatorre-Unai Artieda bikoteak bertsoan ariko dira. Hiru kanporaketetako irabazleak lastailaren 26an,

19:30ean, Iruñeko Arrano elkartean jokatuko den finalean neuruko dira.

Arraiza

Egitasmo horren bitartez, Eugenio Arraiza (Iruñea, 1936-2015) zenari gorazarre egin nahi dio elkarrekin. Ikertzaile eta eragile nekaezina, kulturgintzaren eta euskalgintzaren alor ugartan aritu zen Arraiza; besteak beste, Nafarroako Bertsozale Elkarteak, UEU, Nafar Ateneoa, Eusko Ikaskuntza, Arturo Kanpion euskaltogia eta Karrikiri sustatu zituen.

11 GALDERA

“Pentsatu nuen Arbizurako gauza polita izanen zela”

Arbizu XIX. mendeko prentsan bilduma lana egin du elkarrizketatuak. Hemerrotekatik tiraka Arbizuko historia eta herria bera ezagutzeko modua eskaintzen du. Berezko albisteen bilduma liburutegian dago, baina publiko orokorrarendako argitalpena, Arbizuko Kazeta, udaletxean edo liburutegian eskuratu daiteke.

Alfredo Alvaro Igoa ARBIZU

1 Liburutegiko xagua zara?

Esan daiteke, bai. Nahiko aditua halako gazetan.

2 Nolaz bururatu zaizu Arbizuri buruz XIX. mendeko prentsan argitaratutako albistek jasotzea?

Ni Bidankozekoa naiz. Nire herrian hainbat gai landu ditut, haien artean hemerroteka bildumak. Han dagoeneko XIX. mendetik 1970era bildu dut dagoeneko. Duela 10 urte Arbizun bizi naizenez, eta emaztea bertakoa denez, bururatu zitzaidan interesgarria litzatekeela Arbizun halako zerbaite egitea.

3 Zein artxibotara jo duzu horretarako?

Interneten hainbat gordailu ditugu non hainbat hedabide eskaneatuta dauden eta bilatu ahal den testuaren arabera. Kultura Ministerioaren web orrian eta Liburutegi Nazionalako hemerroteka birtualean, azken horretan dexente gutxiago dago. Nafarroako 18 hedabide daude. Batzuetan ez dago gauza handirik, besteetan gehiago. El Pensamiento Navarro Nafarroako



Gotzon Perez Artutx, Hemerroteka aztertzailea . GUAIXE

Liburutegi Nagusian begiratu dut ere. Hortik aurrera, egiten segitzen badut, Diario de Navarra ere liburutegietan ikusgai dago. Hori hurrengo baterako izanen da.

4 Hor mami asko, ezta?

Diario de Navarra 1903an argitaratzen hasi zen eta bilduma honetan ez zen sartzen. Ordutik aurrera, horrekin eta El Pensamientoekin batera, bi horiekin, bakarrik aztertzeko eduki dexente daude.

5 XIX. mendean prentsaren booma, ezta?

Bai, batez ere, XIX. mendeko bigarren erdian. Hori lotuta egonen da, alde batetik, kulturaren hedapenarekin eta bitartekoen erabilgarritasunarekin. Baina, beste alde batetik, nahiko lotuta egonen da ideologiaren garapenarekin. Garaiko hedabide denetan agertzen zen egunkariaren izenaren azpian zein ideologia zeukan. Esaterako, dios y fueros, edo liberala, edo tradizionalista eta abar. Liburuxkan bertan ikus daitezke.

6 Zein hizkuntzatan?

Gaztelaniaz.

7 Noiz agertu zen aurreneko Arbizu XIX. mendeko prentsan?

I. Karlistadako testuinguruan, 1835ean. Albiste motz bat da. Arbizun gertatutako kontu bat gerrako testuinguruan kontatzen du.

8 Nolako albisteak sortu zituen Arbizuk?

Denetarik. III. Karlistadara arte, mendeko hiru laurden, batez ere gerraz edo harekin lotutako kontuez hitz egiten da. Esan daiteke, Arbizu nahiko feudo karlista zela. Nahiz eta gerran bertan ez izan, II. Karlistadaren aurretik armen kontrabandoa eta halakoak zeuden, zetorren gerra prestatzeko. Ordutik aurrera denetarik dago: arbizuarrak nekazaritza eta industria erakusketa nazionalera joan direla, justiziarekin lotutako kontuak (herri epaimahai izatera deitutakoak...) gertakariak (istripuak, suteak...) edo hilketak. Azken karlistadaren ondoren Arbizuko alkatea hil zuten.

Hori prentsari esker dakigu, baina ez da oso gertaera jakina.

9 Zeinek idazten zituen albiste horiek, herriko korrespondentak edo erredakzioan?

XIX. mendeko azken urteak arte, gehien bat, gaur egun agentzietakoak direla esanen genuke. Hainbatetan, batez ere gerretan, ikusi ahal da albiste bera hainbat hedabidetan hitzez hitz errepikatuta. Azken-azken urteetan, batez ere El Pensamiento Navarroren agerpenarekin, berriemailearen figura erabiltzen hasten dira. XIX. mendean oraindik Arbizun ez dago halako figurarik. Hurrengo hamarkadan al-baitaria edo izan zen. Horri esker 1905etik aurrera hainbat albiste ditugu berari esker.

10 Mende bateko albisteak jasotzea zenbat kostatu zaizu?

Batek daki. Ez ditut orduak zenbatu, baina denbora asko.

11 Gauza bat da biltzea eta beste bat zabaltzea. Zergatik?

Inolako asmorik gabe egiten hasi nintzen. Nire herrian bildua nuen eta pentsatu nuen Arbizurako gauza polita izanen zela. Kultura zinegotziari proposatu nion: ni edukiaz eta forma ematez arduratuko nintzen eta udala hedapenaz. Hori da egin duguna. Ea orain jendeak zein harrera egiten dion. Nahiko liburu interesgarria da. Hor bilatu ahal duzu bitxikeriengatik, jakin-minagatik, edo historia gustatzen zaizulako, edo genealogia gustatzen zaizulako; zeren izen-abizenen araberrako aurkibide bat dago. Hala familiako norbait agertzen den ikus dezakezu. + guaixe.eus-en

...eta beste urte bat

Ilbeltza Otsaila Apirila Garria

Bada garaia zure egutegia egiteko!

zure begien aurrean pasa da ...

Jar zaitez gurekin kontaktuan ikusi aukerak eta eskatu aurrekontua!

gk
KOMUNIKAZIOA
www.gkomunikazioa.eus
gk@komunikazioa.eus
948 564 275
948 562 107